



# ARGIA

## TXIP TXIKI, KOLAPSO HANDI

Lurraren ustiaketa jasangaitzak  
hornigaien krisia ekarri du

24-29. orriak

#2.758 | 2021 / 12 / 12 | 3,90 €



**Erreferenduma  
inposatu die  
kanakei Parisek**

12 | NAZIOARTEA



**"Marra gorriak gabe  
sartu gara hezkuntza  
akordiorako prozesuan"**

30 | IKOITZ ARRESE



**"Errugbiak ikaragarri  
lagundu nau nire  
burua ezagutzen"**

35 | SAIOA JAURENA

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa  
www.bertsosarrerak.eus

# BIZKAIKO

BERTSOLARI  
TXAPELKETA

20-21

---

# FINALA

**BILBO** Abenduaren 18an, zapatua,  
17:00etan, Bilbao Arenan (Miribilla)

---

Antolatzailea



Babesleak



bbk



Laguntzailea



## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
DANI BLANCO

## Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | JUNE FERNANDEZ
- 21 | MAIALEN ARTEAGA
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | ENEKO GORRI

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: ARKAITZ PRIETO
- 54 | BERANDUEGI



DOSPORDOS

### 30 | IKOITZ ARRESE HEZKUNTZA AKORDIOAZ

Mikel Garciak egin dion elkarrizketan Jaurilaritzan hezkuntzari buruzko akordioa lortzeko hasia duten prozesuaz aritu dira: publikotasuna nola birformulatu duen EH Bilduk, udalei eskumen gehiago emateko nahia, murgiltze eredu orokortzeko proposamena... eta negoziatziora daramaten jarrera.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL  
**Erreferenduma inposatu die kanakei Parisek, COVID-19 giroan dolu denbora eta ohiturak zangopilatuz**  
Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | MARTXEL RODRIGUEZ  
**“Lesakatik eta periferiatik sortzea, hori da aurrera ateratzeko gure aukera bakarra”**  
Reyes Ilintxeta

24 | EKONOMIA | TXIPEN HORNIDURA KRISIA  
**Gailur bat gutxiago, kolapsora bidean**  
Urko Apaolaza

27 | EKONOMIA  
**Tahnatiaren itzala**  
Xabier Letona

35 | KIROLA | SAIOA JAURENA  
**“Bortzaz jokatzeko batu egiten gaitu errugbilariok”**  
Eñaut Agirrebengoa

38 | EUSKARA | ESKUBIDE URRAKETAK  
**Udaltzainek zergatik ez digute euskaraz egiten?**  
Onintza Irureta

44 | KULTURA  
**Azpi-ko atea zabalik**  
Jone Alaitz Uriarte

46 | KULTURA | LITERATURA  
**Franca Rame: umorea, memoria egiteko**  
Ainhoa Aldazabal

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

**Lehendakaria**  
Onintza Irureta

**Erredakzioa**  
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
Maitane Gartzandia

**Argazkilaria**  
Dani Blanco

**Produkzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

**Salmenta**  
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

**Azoka**  
Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza

**Web garapena**  
Asier Iturralde

**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**  
SS 837-2012  
ISSN  
0213-909X  
**Batzorde parekidea**  
72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikoak**  
komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

**Telefonia**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
**Nafarroa**  
Gasteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA





# The Ameriguns

Azaroaren 30ean, Detroiten, 15 urteko mutil batek bere aitaren pistola erdiautomatikoa eskolara eraman eta hamaika ikasle tirokatu zituen, gutxienez lau hilez. AEBetan endemikoa den arazoaren azken adibidea da. Gizarte zibiletik armak kontrolatzeko neurriak hartzeko presioa handitzen ari den bitartean, klase politikoak erreakzionatu gabe jarraitzen du. The Gun Violence Archive taldearen arabera, 2021ean 18.900 lagun baino gehiago hil dituzte tiroz –2019an 15.500 izan ziren–, 37.300 zauritu, 950 ume tirokatu eta 650 tiroketa masibo gertatu dira –2014an 272 izan ziren–. Irudian, Texas-eko Austin hiruburuko familia bat eta bere armak. Ez dakite zehazki zenbat duten, “150 eta 170 artean”, diote. 11 urteko Josh semeak gurasoen “trazioari” heldu dio, eta eskuetan dauka berak bere kabuz eraikitako pistola.

 GABRIELE GALIMBERTI  AXIER LOPEZ

# Ikus-entzunezkoen Espainiako legeak hautsak harrotu ditu

**ERREDAKZIOA**

Ikus-entzunezkoen legerako, ikus-entzunezko plataformetako katalogoaren gutxienez %6 euskaraz, katalanez edota galizieraz egotea adostu zuen ERC alderdi katalanak Espainiako Gobernuarekin, estatuko aurrekontuak onartzeko negoziaketetan. Orain Gobernuak argitu du egoitza Espainian duten plataformei baino ez diela eragingo eskakizunak eta beraz besteak beste Netflix, HBOMax eta Amazon Primek ez dute kuota bete behar.

Filmin eta Movistar+-ek, adibidez, gutxienez %6a eskaini beharko dute euskaraz, katalanez edota galizieraz, egoitza Espainiako Estatuan duten heinean, baina beste hainbat plataforma handi geratu dira eskakizunetik kanpo. Gobernuak ez zuen letra txikia azaldu, ERCrekin akordioa lortu zuenean, baina behin aurrekontuetarako alderdi katalanaren aldeko botoa lotu duenean jakin dira zehaztapen hauek.

ERCKo parlamentari Gabriel Rufiánek esan du helegiteak aurkeztuko dituztela ikus-entzunezko legearen tramitazioan

eta legea hobetzeko dauden erremintak erabiliko dituztela.

Azken berri horren aurretik ere, %6a gutxiegi dela esana du AADPC Kataluniako aktore eta zuzendarien plataformak, hizkuntza horiek hitz egiten diren lurraldeetako herritarren proportzioa handiagoa dela aintzat hartuta.

ERCrekin adosturikoaren aurretik, Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek eskatua zuten gutxieneko kuota bat, Espainiako Estatuko hizkuntza menostuentzat.

## "EZ DA INONDIK INORA NAHIKOA"

Bestalde, Espainiako Gobernuko Ministroen Kontseiluak onartutako Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren proiektuaren gainean, jasotzen diren urratsak ez direla "inondik inora nahikoak" salatu dute hizkuntzen eta haien berdintasunaren alde lan egiten duten Espainiako Estatuko hainbat erakundek, Euskalgintzaren Kontseiluak tartean.

Adierazpen bateratuan diotenez, "ez dira inondik inora nahikoak testu ho-

netan jasotzen diren gure hizkuntzen aldeko urratsak, aurretik argitaratutako aurreproiektuei dagokienez. Beraz, nabarmen hobetu beharko da legea Espainiako Kongresuan izapidetzen den bitartean. Izan ere, legedi justuago eta demokratiko batek Espainiako Estatua-ren hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortu, defendatu eta sustatu behar du. Eta gure hizkuntzei orain arte ukatu zaizkien espazioak berreraikitzen eta berreskuratzen lagundu behar du".

**"Gure hizkuntzei orain arte ukatu zaizkien espazioak berreraikitzen eta berreskuratzen lagundu behar du legeak"**

Aniztasun hori gutxienez bi eremutan zehaztu beharko litzatekeela diote: "Lehenik, Estatuko hizkuntza guztietako edukiak eta gutxieneko ehunekoak berdinduko dira bikoizketan, azpitu-tuluetan eta audiodeskribapenetan. Bigarrenik, Estatuko hizkuntzetako ikus-entzunezko ekoizpenak finantzatzeko betebeharrak berdinduko dira, plataforma digitalerako zein telebista-kanalerarako".

## PLATAFORMETAN BAZTERTUAK

"Ikus-entzunezkoena da gaztelania ez diren hizkuntzek bazterketa nabarmena duten sektoreetako bat", salatu dute eragileok. "Netflix, HBO Max, Prime Video, Rakuten TV, Apple TV+, Movistar+ edo Disney + bezalako ikus-entzunezko plataformen katalogoetako milaka izenburuetatik oso ehuneko anekdotikoa dago, kasurik onenean, hizkuntza horietan, eta gehienetan ekoizpen propioak izaten dira. Gaztelaniaz, berriz, eskaintza osoa dago bikoiztuta edo azpitu-tuluak jarrita. Halaber, eskaintza osoan zehar dozenaka hizkuntza ditugu eskuragarri, eta ikusi da horrek ez duela inolako arazorik sortzen". ●



# Ahantzura



ARITZ GALARRAGA

**A**ustralian, Sidneyn, Liverpool Street izenekoan omen daude –edo zeuden, behintzat, hain azkar aldatzen da dena– jate-txe espainiarrak. Guillem Martinez kazetariak kontatzen du, sekula aurretik, eta geroztik ere ikusi gabeko bi ezaugarri zituztela: baga, sukaldaritza espainiarra ahaztuta zuten, XX. mendeko 60etan osatutako plater multzo hori; zeozer antzekoa sukaldatzen zuten, nahiz erabat diferentea eta ezagutezina izan, plateri ematen zieten izenarekin konparatuz behintzat. Eta biga, bakana, jatetxe haien jabeek beren ama hizkuntzak, gaztelania, edo galegoa, ahaztuta zituzten erabat. Izateko modu erlaxatu bat iruditu zitzaion Martinezi. Ingelesezt hitz egin behar izan zuen behin galegozko hitzen bat tartekatzen zuen jabe batekin. Bere herrialdea, Australia, ez zuen ondare izpiritual baten gisara definitzen, objektu sorta bat bezala baizik –“Hemen ez zegoen ezer. Ezinezkoa zen baratxuriak aurkitzea. Txinatarrak iritsi ziren arte”–; eta bere naziotasuna, australiarra, ez zuen zera abstraktu baten gisara definitzen, eskubide sorta bat bezala baizik –“Zuk noiz eman ahal izan zenuen botoa lehen aldiz? Nik, 1967an”–. Jatetxe horietan sartzean bizizaletasuna sentitzen omen zen, izugarritzko askatasuna. Lotura antzinako eta ikusezinetatik askatutako jendea zen. Eta, kontrara, norbere loturak uzten zituzten agerian. Australiako ahantzura inbidiaz gogoratzen du kazetariak. Beharrezkoa da ahaztea. Zenbat denbora, zenbat belaunaldi daramagu ahaztu gabe? Zenbat daramagu gogoratu besterik egiten ez dugula?

Esaten dute memoria garella, memoriarik gabe ez ginatkeela gizaki; baina, egiazki, ez ote den gizaki ez garella ahantzurarik gabe. MZ, gure Michel Onfray partikularrak –Michel Onfray ona, bistan da, ez orain bilakatu den gauza gorri-arre hori–, esaten zuen, ez dut gogoan non, gizakiaren ahazmena indartsua dela, ezinbestekoa gainera orainaz gozatuko badugu. Memoria, esan dezakegu dagoeneko, gainbaloratuta dago. ●

ESPAINIAKO KONSTITUZIOA  
AZKENEAN ZUBIAN  
EZ DA GUREA!  
NONBAITERA JOAN ZINEN?

BAI, NAZIO BAT GARA  
BAI, FURGONETA HARTU  
ETA GURE ETORKIZUNA  
ETA ESKIATZERA JOAN GINEN  
ERABAKI NAHI DUGU!  
AZOKATIK PASA OSTEAN, NOSKI!



ADUR

## Deliveroo

Espainiako Estatutik eta beraz Hego Euskal Herritik irten da Deliveroo janari banaketa enpresa, eta 3.800 langile inguru kaleratu ditu. Udan iragarri zuen estatutik irteteko asmoa, Espainiako Gobernuak Rider Legea ezarri zuenean. Argudiatu dute ez zaiela bideragarri.

## COVID-19

Hiru hilabete ere ez dira EAEn osasun larrialdia bertan behera utzi zuela Jaurlaritzak. Bada, larrialdi egoera berrezarri du. Horrez gain, EAEn ere (Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian bezala), covid ziurtagiria ezarri da hainbat jardueratan.

## Higa

Hurrek ahoz duten hizkuntza garapena euskaraz aztertu ahal izango da Higa tresnari esker, ohikoa bestea baita: haur euskaldunek hizkuntza garapenean zailtasunak dituztenean frantsesezko edo gaztelaniako ebaluazio tresnak erabili ohi dira.

## EKONOMIA

# Zaindu gaitezen, baina aurrekonturik gabe



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU

**E**Ajk Espainiako Senatuko bozketa-  
ren unerako utzi omen ditu AHTra-  
ko diru gehiago ekartzeko negozi-  
azioak. Oraingoan, trena hiriburuetan  
sartzeko izango omen da dirutza, Donos-  
tian herritarrek behar ez duten metroa-  
rekin batera, Bilbo inguruan inork gu-  
txik erabiltzen duen Supersurrarekin...  
betiko enpresek irabaziak ziurtatuta di-  
tuzte urteetan.

Bitartean, zaintzaileen borroka ez du  
etenik, behar eta merezi duten oihartzu-  
na ematen ez bazaie ere –Cadizeko me-  
taleko grebak atxikimendu eta oihartzun  
handiagoa izateak zer pentsa ematen du-  
Zaharren egoitzetan zerbitzua hobetze-  
ko, lurralde hitzarmenekin sektoreari zor  
zaion duintasuna emateko, garbitzaileen  
baldintzak hobetzeko... Beste sistema ba-  
teranzko borroka dira, guztiak ere.

2022ko aurrekontuetan zaintzaileen  
premiez hitzik ez, konpromisorik ez, fi-  
nantziaziorik ez. Omen, krisiaren kon-  
trako aurrekontuak dira, baina zaintza  
krisiaz ezer ere ez. Ez Madrilen lortu di-  
ren akordioetan, ezta Nafarroarako zein  
EAErako egin diren ere.

Zaintzarako sistema berria behar  
dugula erakutsi digute zaintzaileek bo-  
rrokaz borroka. Zaintzak ziurtatzeko,  
zaintza-ardurak eta lanak guztion artean  
banatzeko, eta zaintzaileen bizi baldin-  
tzak hobetzeko sistemaren pentsatzen eta  
eztabaidatzen ari dira mugimendu femi-  
nistan nola euskal sindikatuetan.

Hitz onak ez dira falta izan institu-  
zioetan. Baina? Zaintzarako euskal sis-  
tema publikoa antolatzea bide oso baten  
emaitza izango da. Aukera paregabea  
galdu dute bide hori instituzioetatik  
ere bultzatzeko eta bideratzeko prest  
daudela erakusteko. Ez da diru gehiegi  
behar bidea abian jartzeko, zaintzak er-  
digunean jartzeko borondate politikoa  
bai ordea. ●

## ANALISIA



# Umora-mozorroa jantzita dator autoritatea

✂ JON TORNER ZABALA

**C**oses estranyes, kar kar kar. *El joc del calamar*, kar kar kar. Eztanda egingo dut barrez! Benetan, zer ari zarete telesailak katalanez edo euskaraz ere ekoiztu daitezela eskatzen, hustutako Espainiako herrietan zuntzik ere ez daukatenean?". Itzulita: agian ergelegiak zarete zuen egoismoaz jabetzeko, baina ez dakizue hustutako Espainiako herrietara zuntzik iritsi ez bada, dela jende bat telesailak katalanez edo euskaraz ekoiztu daitezela eskatzen ari zaretelako?

Harrapazank! Botere-eskalan goiko adarraren puntaren puntan sentitu behar du pertsonak, RNE edo SER irratietan tamainakoak botatzeko lotsatu ere egin gabe. Areago, tamainakoak bota eta txistearekin barre egiteko. "Ei, txo, zer haizek jo zaitu? Umorezko irratsaioak dira, ez besterik. Bada garaia gure buruez barre egiten ikasteko!".

Zer haizek diozu? Kolpe bakarrean azaleratu du diskurtsoaren amarrua Galder Gonzalezek sare sozialetan: "Pertsona batzuk borrokan ari diren bitartean Internet heltzeko haien herrialdeko herri guztietara, beste batzuk gosez ez hiltzeko borrokan ari dira Somaliako herrixka batean. Lehentasun kontua. / Jabetu al zarete zein erraza den demagogia egitea?". Ba horixe. Telesail estatubatuar edota hegokorearren izenburuak katalanez erreztatzeak eragin duen barreari buruz ez dakit zer esan, hain da irrigarria...

Demagogia. Supremazismoa. Umora-mozorroa jantzita errazago asimilatzen dugun diskurtsoa, hura inposatzeko baliabide gehiago dituen agente baten garaipenaren erakusgarri. "Umora da mediazio politikoa", kontatu zigun nonoiz ARGIAN Uxua Anduaga soziologoak: "Umorea, huts-hutsean, soziala da, ikasi eta erreproduzitu egiten den zerbait, etengabe eraikitzen ari dena, berezko edo natural izatetik urruti dagoena eta gizartean eragiteko gaitasuna duena. Ez dago umore zuririk, tentela edo otzana denik, juzkua –egokia denaren eta ez denaren arteko balorazioa– helarazten duelako beti".

Eta orain, gaztelaniaz mintzo den komunitatearen parte bat –hedabideetan presentzia handia duena– esaten ari zaigu telesailak katalanez edo euskaraz ekoizteko eskatzea ez dela egokia, badirela beste lehentasun batzuk –betiko leloaren betiko leloa–, iji eta aja, eskatzen digute ez gaitzela egoistak izan, ez ditzagula kapritxo nazionalistak inposatu –Nafarroan ETB3 ikustea bezala–, aja eta iji, gure diskurtsoaren –eskakizunen– zilegitasuna anulatzeraino. Autoritatea sendotzeko baliabide eraginkorra da umorea, haren bidez finkatu egiten baita norberaren posizioa piramidean. Are gehiago. ●





65

zaintza kamera jarri nahi dituzte Zizur Nagusian. Jarri ala ez herri galdeketa egin dadin, 1.754 sinadura bildu ditu Bizi Zizur herri plataformak. "Ez dugu beldurraren diskurtsoan sinesten, Zizur herri segurua da", aldarrikatu dute.

600

milioi COVID-19 txerto oparitu dizkio Txinak Afrikari, eta 400 milioi gehiago ekoizten lagunduko dio, Afrikako herrialde aurreratuenetako konpainiek eta botika-ekoizle txinatarrek elkarrekin antolatuko duten produkzioan.

3

pertsona kutsatzen dira GIB birusarekin munduan, minutuero. 2020an Hego Euskal Herrian 134 kasu positibo atzeman zituzten eta munduan 680.000 pertsona hil ziren hiesarekin lotutako gaixotasunen ondorioz.

*"Gazteak euskaraz deseroso sentitzen dira ez dutelako gaitasun nahikorik"*

#### **NAROA JAUREGIZURIA**

Getxo, Leioa, Bilbo edota Portugaleteko zenbait ikastetxetako gazteek euskaren eta euskal kulturaren inguruan duten pertzepzioa ikertu du.

**HIRUKA (2021-12-02)**



**"KALERATZEAN EGITEN ZAIZKIGUN HARRERAK HURKOEN ARTEAN ETA ERA PRIBATU ETA DISKRETUAN JASO NAHI DITUGU AURRERANTZEAN"**

#### **EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOA (EPPK)**

**2021-11-30**

*"Aurrerapauso handia da, LGBTIQ komunitateek jasan dezaketen diskriminazioaren aurrean behar duten babes legala bermatua izan dezaten"*

#### **LEGABIBO**

Botswanan sexu berekoen arteko harremanak zigortzen zituen legea behin betiko indargabetu du herrialdeko Auzitegi Gorenak. LEGABIBO Botswanako lesbiana, gay eta bisexualen elkarrekin "garaipen historikoa" ospatu du.

**2021-11-29**



# Presoek euskara ikasteko duten eskubidea bermatzeko eskatu dute

LEIRE ARTOLA ARIN

Irakasle boluntario talde bat euskarako eskolak ematen ari da presoek 2017tik, eta egindako lanaren "arrakasta" azpimarratu dute. Halere, kexatu dira "baldintza penagarrietan" izaten direla klaseak, eta euskal administrazioei eskatu diete euskara ikasketei ofizialtasuna emateko espetxeetan.

"Euskara herri kohesiorako tresna dugu", gogorarazi du presoek euskara irakasle taldeak. Aldarrikatu dute "edozein gizarte prozesutan" euskararen ezagutza eta erabilera "ezinbesteko osagaiak" izan behar direla; besteak beste, kartzelatan. Beraz, euskal administrazioei eskatu diete presoek bermatzeko euskara ikasteko eskubidea, eta horretarako "baldintza duinak" eskaintzeko, "beste edozein herritarrekiko berdintasunean".

Duela lau urte hasi zen taldearen lana: 2017an zortzi irakasle boluntario eta urrundutako bederatzi preso euskarako eskolak ematen hasi ziren, EGA orduko titulua lortzeko asmoz. Nabarmendu dute baldintza eskasetan aritu zirela, baina emaitza "arrakastatsua" izan zela; guztiek eskuratu zuten titulua, eta irakasleak, ikasleak zein senideak "asebeteta" geratu ziren. Ordudunik deialdia zabaldu dute, eta maila ugari eskaintzen dituzte; ikasle eta irakasle gehiago batu dira taldera. Irakasle boluntario guztiak dira euskaltegi-tan jarduten duten irakasle ofizialak.

Irakasleek azpimarratu dute kartzelak euskaltegi bilakatzeak onurak baino ez litzukeela ekarriko: euskara ikasteak "hormen arteko bizitza harmoniatsua" bihurtuko luke, eta presoak jendar-tean "sustraitzen" eta "harreman sareak berregiten" erraztuko luke.

## OFIZIALTASUN ESKE

Orain arteko lan isila azaleratu eta beste pauso bat exijitu diote Eusko Jaurlaritzari, espetxeen eskumena jaso duela-eta: eskolak ofizializatzea, beste ikasketa batzuk dauden moduan. Azaldu dute instituzioek "hitz ederrak" helarazi dizkietela egiten duten lanagatik, baina egoera hobetzeko konponbiderik ez. ●

NAZIOARTEA

# Osasunaren enkantea

AXIER LOPEZ

Bizitzaren alderdi guztien merkantilizazioa prozesu etengabea da zenbait hamarkadatik hona. Zerbitzurik funtsezkoenak ere ez dira olatu pribatizatzailetik salbu. Areago, negozioirik borobilenak dira multinazionalentzat. Erakunde publikoek diruz ongien babestutako sektorea da ospitale eta adinekoentzako egoitzena, eta, horri esker, enpresa pribatuek diru-sarrera erregular eta fidagarriak dituzte bermatuta. Gainera, biztanleriaren zahartzeak eta, horren ondorioz, gaixotasun kronikoek hazkundeak argi adierazten dute etorkizunean ere osasun-zerbitzuen beharrak eta eskaintzak gora egiten jarraituko dutela.

Nazioarteko erakundeek (OME, NDF, Munduko Bankua eta Munduko Merkataritza Erakundea) eta Europako eta estatu mailako instituzioek sustatutako liberalizazio- eta desarautze-politikek osasun-sektorea mauka erakargarri bilakatzen lagundu dute neurri handi batean.

Transnazionalen Behatokiak Europako Sareak (ENCO) aztertu du Europako adinekoen egoitza eta ospitale pribatuen egoera. Bere ondorioen arabera, enpresak bat egiten ari dira eta nazioarteko merkatura zabaltzen, eta enpresetan gero eta partaidetza handiagoa dute inbertsio-funtsek. Gora doa joera hori kontinente osoan.

ENCOren arabera, Frantziako, Alemaniako eta, neurri txikiagoan, Britainia Handiko enpresa batzuk dira

Europako osasunaren merkaturako pastela jaten ari direnak. Adibidez, egoitzak eta ospitaleen sektoreak batura, Fresenius alemaniarra da Europako enpresarik handiena, 35.000 milioi euroko balioa du.


Europa mendebaldeko hegoaldea, zahartze-prozesu nabarmena bizi duena, oso merkatu erakargarria da multinazionalentzat. Adibidez, Espainiako Estatuan, eragile pribatu handiek atzerriko taldeen filial bihurtzeko joera dute (esaterako, Quirónsalud ezaguna 2016an bereganatu zuen Freseniusek). Edo Italian, KOS eta Gruppo San Donato talde nazionalak gain, enpresa alemaniarrek eta frantziarrak dira merkatuan nagusi.

Europako Batzordearen nahia da munduko enpresa handienekin lehiatzeko gai diren "Europako txapeldunak" sortzea. Horregatik, ez da kasualitatea Europako Banku Zentralak eta Europako Inbertsio Bankuak finantzaketa-erraztasunak eskaini izana Korian eta Fresenius enpresa handiei.

Bulkada publiko sendo hori, hala ere, ez dator bat pazienteen egunerokotasunaren gordinarekin, areago pandemia hasi zenetik: ekipamendurik eza, gehiegikeriak, gehiegizko prezioak, etekinari lehentasuna, etab. Beraz, onura ekonomikoa helburu bakar duten enpresa pribatuen esku utzi behar al ditugu osasunaren ardura eta zahartzaroko gure zaintza? ENCOren arabera, galdera egiteak berak dakar erantzuna. ●



## Durango 56. Azoka, berezia

 DANI BLANCO

**DURANGO** / Bi formatutan egin dute aurten Durango Azoka, abenduaren 3tik 7ra online, eta 4tik 8ra aurrez aurre. Aurrez aurrekoan 219 erakusmahai hartu du parte, eta horiek bisitatzeko txanda hartu behar izan da. Egunero gehienez 1.200 bisitariko bost txanda egon dira eta ordu eta erdiko tarteak eduki dute azoka bisitatu eta erosketak egiteko. Beste edizio batzuekin alderatuta, beraz, nabarmen txikiagoa izan da bisitari kopurua. ARGIA ere bertan izan da, ohiko moduan, eta Mbole Moye Doole-ko lagunek ere mahaia izan dute kanpoan, "Inor ez da ilegala" proiektua oinarri.



# ERREFERENDUMA INPOSATU DIE KANAKEI PARISEK, COVID-19 GIROAN DOLUARI BIDERATU DENBORA ETA OHITURAK ZANGOPILATUZ

Independentziari buruzko hirugarren eta azken erreferenduma dute abenduaren 12an Kanaky herrian, 1988ko Matignoneko akordioak eta 1998ko Noumeako akordioak hori finkaturik. Alde guztiak ziren egitearen alde, baina, geroztik COVID-19a hedatu da Kanakyn, egoera sozioekonomiko eta kulturalak direla-eta, batez ere autoktonoak hunkiz. Doluari zor zaion lekuak garrantzi handia duelako kanaken kultura, eta kolonizazioarekin pairaturiko izurrite hilkorren trauma oraindik bizirik dutelako, atzeratzea eskatu dute kanakek. Halakorik ez du onartu Frantziak.

## JENOFA BERHOKOIRIGOIN

COVID-19 testuinguruak sakonean eragiten digu, zuzenean hunkitzen du gure memoria. Zauri kolonialak eta izurriteek eragindako traumatismo kolektiboaren herentziarekin parez-pare jartzen gaitu". Guyanako Ohitura Bartzar Handiaren gogoeta da, Frantziaren menpe izaten segitzen duen Guyanako autoktonoen batzarrarenak. Hego Amerikatik dator hausnarketa, baina berdin-berdin etor zitekeen Ozeano Pazifikotik, Kanaky ala frantsesek Kaledonia-Berria izendaturiko irla multzotik. Birusen mamuek bizirik segitzen dutelako kolonizatuak izandako populu orotan.

Irène Bellier antropologoaren azterketak baliagarriak dira horretaz oharrezko bidean. Hain zuzen, "populu autoktonoak nola afektatu ditu SARS-Cov-2 birusak" galdera iparrorratz gisa harturik eraman du bere ikerketa, Afrikako, Ipar Amerikako, Hego Amerikako, Karibeetako, Artikoko, Asiako, Ozeaniako eta Errusiako datuak aztertuz. Ondorio argia ateratzen du: "Oroitzapen dramatikoak berpiztu ditu izurrite honek, batez ere Ameriketako eta Ozeaniako autoktonoen artean. Europatik zetozen esploratzaileekin, kolonizatzaileekin eta soldaduekin izandako 'lehen kontaktuek' ia beti epidemia bat ondorioztatu zuten. Adibidez, Ekuadorren autoktonoen %90 desagertu zen XVII. eta XVIII. mendeetan, europarrek ekarritako baztanga

eta elgorri epidemiengatik. Immunizatu gabeak izanik, bi bidetatik eraman zen genozidioa: armen bidez eta izurriteekin. Oroitzapen traumatiko hauek berpizten ditu COVID-19 izurriteak".

Giro horretan bideratu nahi du Frantziako Gobernuak independentziari buruzko hirugarren eta azken erreferenduma Kanaky herrian. Alta, garrantzia handiko hitzordu politikoa atzeratzea galdetzen dute autoktonoek Pariseri, justuki osasun egoeragatik. Eskaerari elkor, abenduaren 12ko bozka eguna mantendu du Emmanuel Macron Frantziako presidentea. 16.700 kilometrotara daukan bulegotik, lekuko kezka eta eskaerei jaramon egin gabe, berea inposatzea: hori ere bada kolono joera.

Koronabirusak mundua gogorki josten zuen lehen olatuetan ez zen hunkia izan Pazifikoko irla multzoa, baina 2021eko iraila hastapenez geroztik haienean ere dute birusa. Arrazoi sozioekonomiko baita kulturalak direla eta, autoktonoak dira nagusiki kutsaturik eta eri. "Badakigunean kanakak eta beste herri ozeaniarrak direla COVIDak eragindako heriotzaz gehienak hunkiak, hauei buruzko errespetu falta da abenduaren 12ko bozketaren inposaketa", irakurri daiteke 150 bat eragilek izenpeturiko *Solidarité avec le peuple kanak, report du référendum du 12 décembre* ("Kanakekin elkartasuna, abenduaren

12ko erreferenduma atzeratzearen alde") testuan. Hildakoen bi herenak dira autoktonoak.

*Middle East Eye* komunikabidean argitaraturiko *En Nouvelle-Calédonie, le coronavirus est un révélateur de colonialité* ("Kaledonia-Berrian kolonialitatearen erakusle dugu koronabirusa") artikuluan irakurri daiteke alkoholismoa, obesitatea ala diabetesa direla eta, "komorbiditate faktoreak" altuak direla autoktonoen artean. Horri gehitzen zaio ere batez ere autoktonoak hunkitzen dituen prekarietate sozioekonomikoa: pobrezian bizi da Kanakyo %17, baina zehazkiago, barne biltzen dituen Leialtasun Uharteetan %52 da pobre -hauetan %96,96 dira kanakak- eta Hegoaldeko Probintzian berriz %9koa da -hauetan bakarrik %26 dira kanakak-. "Ohitura sozial komunitarioak" izateak ere dakar birusa errazkiago hedatzen dela.

1853an kolonizatuak izan ziren, kolonoekin batera birusen drama pairatuz urte luzeetan: 1853. urtearen eta 1920ko hamarkadaren artean autoktonoen erdia desagertu zen, 55.000 izatetik 27.000 izatera pasaz. Baina aurretik hasia zen desmasia: 1774 eta 1920 urteen artean kanak biztanleria %75-%95az apaldu zen, eta hori nagusiki eritasunengatik. Hildakoen leku inportantea atxikitzen dute, ordea, komunitatean, arbasoen izpirituek zentralitatea dutelako kanaken bizian. Heriotza eta bizia eskuz esku izanik, nabarmentzekoa



### TRAUMATISMOA.

Kanaky herrian COVID-19agatik hildakoek bi herenak autoktonoak dira. Iraganean jada, kolonizazioak ondorioztatu izurriteez traumatizaturik, garai hau partikularki gogorra izaten ari da Kanak komunitatearentzat.

da 2014an izenpeturiko Kanak Herriaren Araudiaren lehen artikulua dakarrena: “Bizia sakratua da” oroitaraziz hasten da komunitate honen legedi garrantzitsua.

### DOLUARI LEKURIK UTZI GABE

Guzti hori du zangopilatzen Macronek, erreferendumaren atzeratzea errefusatuz. “Garai honetan bestelako kezkek dituzte herritarrek. Denborarekiko harremana ere ezberdina dute Ozeaniako jendarteek eta argi da une honetan doluaren denborak gaina hartzen diola politikaren denborari”, dio Jean-François Merlek. Hau izan zen 1988an Matignoneko Akordioa izenpetu zuen Michel Rocard Lehen ministroaren kontseilaria. Kezkaturik agertzen da, “Frantziak ez


duelako bere hitza betetzen” eta gogoan duelako batez ere 80ko hamarkadan izandako ia gerra zibil giroa. “Onartezi-na, bidegabea eta ikaragarri arriskutsuztat” dauka Parisek abenduaren 12ko hitzordua ez atzeratzea.

### AZKEN ERREFERENDUMA...

“Traumatismoa” eta “kolpe psikologikoa” direla eta, kanaken Ohiturazko Senatuak ere “urte bateko dola nazionala” dekretatu zuen irailaren 6an. “Erreferenduma egitea erabakiko balute, erran nahi luke harrizko bihotza dutela bihotzaren orde”, instituzio honen hitzetan. Independentisten egitura guztiak batu eta aho batez hitz egin dute: ez parte hartzeko deia egin diete herritarrei; ar-

gitu dute abenduaren 12ko emaitzak ez dituztela ezagutuko; eta jakinarazi dute nazioartera joko dutela Frantziak bere engaiamendua bete ez izana salatzen. Ondokoa ere diote: “Heriotzaren parean guztiontzat berdinak dira mina eta duintasuna. Justu dioguna da doluaren kultura ezberdina gulara”.

Matignoneko akordioek bidea ireki eta 1998ko Noumeako akordioek finkatzen dituzte independentziari buruzko erreferendumak. Independentistak etxean egonez, Frantzian gelditu nahiak ukan behar luke pisu handia, errealitatea faltatuz eta arazo politikoa are gehiago korapilatuz: 2018an %43,33 baietzaren alde agertu zen eta 2020an %46,7, parte-hartzea %80az gora izanik. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegiopika.com

www.zinkunegiopika.com



# Martxel Rodriguez

ZERO KM DANTZARI GARAIKIDEA



## LESAKATIK ETA PERIFERIATIK SORTZEA, HORI DA AURRERA ATERATZEKO GURE AUKERA BAKARRA



Led Silhouette dantza taldearen izenak erakusten du Martxel Rodriguez eta Jon López sortzaileen filosofia: *led* argia da. Argi ona, berria, baina jasangarria aldi berean. Silhouette, beste gauza batzuen artean, euskal abizena ere bada (Ziloeta, Xiloeta), hala ere izen honek, bere itxurarengatik, kanpoko munduarekin lotzen gaitu.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

### Urriaren amaieran *Lys* zuen lan berria estreinatu duzue. Argia esan nahi du, ezta?

Bai hala da, danieraz. Dena sortu zen Guggenheim museoan Olafur Eliasson artistaren argiz eginiko instalazioa ikusi genuenean, eta pentsatu genuen hori ere aplikatzen ahal zela eszenan. Azken urteotan lan egin dugu hemengo argi diseinatzaile batekin, Andoni Mendizabalekin. Beti esperimintatzeko gogo handia izaten du eta berehala ikusi zuen ikaragarritzko aukerak zeudela dantzan argiarekin jozeko. Bestaldetik, argia itxaropen bezala ere ikus daiteke, eta hori oso ongi dago une ilunetik heldu garelako. 90eko hamarkadan jaiotakook pasa ditugu krisi dezente gure bizitza-

ko une klabeetan eta uste dut gure lanak baduela errealitatea aldatzeko gogo hori. Garrasi egiteko gogo modu estetiko eta formal batean.

### Hortaz arituko da ere *Los perros/ Zakurrak* orain prestatzen ari zareten proiektu berria?

Bai. Jon bikotekidea eta biok gara Led Silhouette taldeko sortzaileak eta oraingo honetan duo bat eginen dugu Marcos Morau koreografoaren laguntzarekin. Zuzendari hagitz ospetsua da, La Veronal konpainiako zuzendaria. Berak egin zuen *Oskara*, adibidez. Lagun mina dugu, agenda oso bete da eta berarekin lan egitea suerte handia da. Desegiten ari den mundu batean, bi pertsonen arteko

laguntasuna eta maitasuna islatu nahi ditugu. Erakutsi nahi dugu maitasuna eta fideltasuna euskarriak izan daitezkeela aurrera segitzeko.

### Belaunaldi baten manifestua?

Erabat. Munduari zaunka egitea beharrezkoa da. Maitasuna eta konplizitatea erakutsi nahi ditugu, baina baita errealitatea eraldatzeko nahia ere.

Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza eskuratu genuen lan honetarako eta apirilean estreinatzeko asmoa dugu. Lehenbizi Lesakan DNA programaren baitan egin nahi dugu eta ondoren Gayarre antzokian, apirilaren 29an, Dantzaren Nazioarteko Egunean. Horretarako ere badirudi astroak lerrokatu direla.



# Martxel Rodriguez Etxabide

LESAKA, 1990



Dantzari eta koreografoa. Lesakan finkatuta dagoen Led Silhouette taldeko sortzaile eta zuzendarie-tako bat da Jon Lópezekin batera eta,aldi berean, freelance moduan aritzen da hainbat proiektutan. Txikitatik euskal dantzetan eta dantza modernoetan aritu ondoren, balleta eta dantza garaikidean murgildu zen gaztetan. Fisikan graduatu zen EHU. Danimarkako Black Box Dance Company konpainian eta Kukai Dantza Taldearen *Oskara* ikuskizunean aritu da, besteak beste.

Aurten Nafarroako Gobernuaren Talentu Artistikoa Sustatzeko saria jaso du eta apirilean *Los perros/Zakurrak* proiektu berria estreinatuko dute DNA dantza programaren barruan.

## Testurik badu?

Bai, idatzia. Hainbat hizkuntzatan jarriko dugu goitituluekin. Lesakako estreinaldia euskara hutsez eginen dugu, Iruñean elebiz, seguruenera, eta geroko emanaldiak antzokiek eskatzen dizkiguten hizkuntzetan.

## Hainbat urtetan ezpata-dantzarien buru ikusi zaitugu Lesakako Zubigaineko dantzan. Herriko dantza taldean daude zure lehen urratsak?

Hala da. Hemen Lesakan ume guztiak apuntatzen dira dantzara eta musika instrumentu batera. Gero adinarekin mutilek, batez ere, uzten diote dantzazteari eta aunitz futbolera pasatzen dira. Nik gustukoa nuen eta jarraitzea erabaki nuen, baina ez da nire bokazio bakarra. Nik uste dut pertsonen izaten ahal ditugula bokazio bat baino gehiago. Txikitatik interesa izan dut bai zientzian eta bai dantzan. Ematen ahal du kontrajarriak direla, baina nik uste dut badutela konexio handia.

## Konexio hori jakin-mina da?

Bai. Ez dakizun horren bilaketan oinarritzen dira biak. Dantzan gu beti ari gara mugimendu berriak bilatzen. Pieza guztiak esperimentu txikiak dira.

## Nolako izan da zure ibilbidea?

Euskal dantzeekin hasi nintzen txikitik. Gero, emakume bat dantza-jazz ematera etorri zenean Lesakara, apuntatu nintzen. Han deskubritu nuen bazeudela mugitzeko beste modu batzuk. Berak esan zidan balleta egin behar nuela eta Hondarribian eta Donostian aritu nintzen ikasten. Bilbon Fisika ikasten nuen bitartean dantza garaikidean murgildu nintzen. Gorputz pribilegiatua nuen balleterako eta 14 urterekin aukera izan nuen Parisen formakuntzarekin jarraitzeko, baina nahiago izan nuen Lesakan gelditu. Ohartu gabe, nire buruan dantzarako bide hori itxi zen eta erabaki nuen Fisika ikastea. Lehen klase egunean ikusi nuen nire klasekoak ez zirela nik espero nituen frikiak. Bazen klarinete jotzaile bat, DJ bat, flauta jotzaile bat, Alaine Agirre idazlea nire gelan zegoen... eta bazen lagun bat arratsaldero Deustuko La

Fundación aretora joaten zena dantza garaikide klaseak hartzera.

Egun batean, bigarren mailan geundela, galdetu nion ea ni ere joan nintekeen. Han ezagutu nuen Matxalen Bilbao eta berak esan zidan Donostiako Artelekun bazegoela dantzarigazteez osatutako dantza konpainia bat, Dantzaz izena zuena, eta hara jotzeko. Han izan nintzen urte batez. Orduan Danimarkatik etorri zen zuzendari bat Dantzaz ekimenaren egitura ezagutzeko helburuarekin. Aipatu zuen bi mutil beharko zituztela hurrengo denboraldirako eta aukeratu ninduten. Han izan nintzen urtebete eta jarraitzeko aukera nuen, baina Jon Maiak deitu zidan esanez Marcos Morau etorriko zela heurrekin proiektu bat egitera eta uste zuela nik, gorpuzkerarengatik, mugitzeko moduagatik eta euskal dantzeekin nuen harremanengatik, taldearen parte izateko aukera nuela. Erran nion baietz. Han ezagutu nuen Marcos eta horrela sortu genuen *Oskara*. Gero Jon ezagutu nuen, Marcosekin La Veronalen dantza egiten zuela. Kukaik duen proiektioak eta Marcosen talentuak eraman zuten *Oskara* beste dimentsio batera. Prekario ez den proiektua izan zen.

**“Dantzatze-ko ohitura galtzen dugu gure hezkuntza sistemagatik, hetero-patriarkatuagatik, homofobiagatik, bizimoldeengatik eta tradizio zurrungatik”**

Max sarietarako hautagaitza pila izan genuen, nirea, besteak beste, dantzari bezala. Poz handia eman digun lana izan da.

## Lesakan kokatu duzue zuen konpainia. Ez da ezinbestekoa, beraz, hiri batean bizitzea dantzetatik bizitzeko?

Batere ez. Nik uste dut kontrako gertatzen dela. Dantza garaikidea mundu hagitz zabala da eta hirietan superproduktzio handia dago. Bartzelonan bizi izan gara bi urtez. Han etseguak egiteko gela bat eragintzen genuen orduka. Herriko eragile kultural gisa, Lesakan badugu aukera antzoki osoa erabiltzeko, eta etxetik minutu batera dugu gainera. Dantzariak kanpotik etortzen direnean sorkuntza lan batean parte hartzeko, harrituta gelditzen dira. Guretzat Lesakan finkatzea ez da izan aukera hobeago bat, baizik eta aukera bakarra. Lesakatik eta periferiatik sortzea gure aukera bakarra da aurrera atera nahi badugu.





Gure sorkuntzak zero kilometro dira: argien diseinua egiten duena Beran bizi da, Gaizka musikaria hemengo da, arropa egiten diguna, Iñaki Cobos, Uhartekoa, gertu ditugu mertzeria bat, burdinarekin lan egiten duen enpresa txikia, eta behar dugun guztia... Gure erreferente gehienak holakoak dira. Hau da gure belaunaldiaren ezaugarrietako bat. Aldarrikapena eta beharra dela uste dut.

#### **Eta pandemia dela eta, zer moduz ibili zarete?**

Dantza munduan beti erraztasun handia izan dugu egoeretara moldatzeko,

horregatik COVIDak ez digu hainbeste eragin. Guretzat krisia lehenagotik zegoen eta Lesakan burbuila gisako bat eratu dugu eragin hori hain bortitza ez izateko.

#### **Hemen bizi, baina bidaiak egiten dituzue maiz...**

Bai, Lesakara itzultzen gara beti, baina guk lan egiten dugu antzokiak dauden tokietan. Ni Kukai dantza taldearekin ibili naiz bost urtez bueltaka Europa osoan zehar eta Jon berdin ibiltzen da La Veronale konpainian. Polita da European zehar lan egin eta beti Lesakara itzul-



## **BETI DANTZAN**

“Noiz hasi zinen dantzan galderak ez du zentzurik. Guri egin beharreko galdera da ‘utzi al diozu noizbait dantzatzeari?’. Euskal Herrian, Mendebaldeko munduan oro har, pentsatzen da umeez dantza egitea normala dela, baina helduek ez horrenbeste. Horregatik, arrazoi aunitzengatik, denborarekin dantza utzi eta gorputzarekiko konexioa galtzen da. Terapeutikoki eta espiritualki ona izaten ahal den dantzatzeko ohitura galtzen dugu gure hezkuntza sistemagatik, hetero-patriarkatuagatik, homofobiagatik, bizimoldeengatik eta tradizio zurrungatik”.

tzea. Beste alde batetik, gaizki sentitzen gara gure karbono aztarna nahiko altua delako bidaiengatik. Kukairekin nik bi eguneko bidaia azkar asko egin ditut. Moskura joan eta etorri, esate baterako. Horregatik, gainerako denbora guztian saiatzen gara modu ahal den jasangarrienean aritzen.

#### **Fisikoki nolokoa da dantzari izatea?**

Zoritxarrez, egiten dugu beharko gureak baino gutxiago. Nik Danimarkan lan egin nuen urtebetez eta han ezagutu nituen bestelako lan baldintzak. Bai konpainietan finko daudenak, bai freelance moduan aritzen direnek badute aukera entrenamenduak eta formakuntza teknikoa doan egiteko. Hori hemen pentsaezina da. Guk yoga egiten dugu, baina kudeaketa lanak ere egiten ditugunez, ordenagailu ordu piloa sartzen dugu eta horrek gorputzari eragiten dio.

Nafarroako Gobernuan, aldaketaz geroztik, sumatzen dugu gauzak aldatzeko eta sortzaileen lan baldintzak hobetzeko desioa, baina sektore hau oraindik ez da ateratzen zulo horretatik.



**mitxelena**  
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21  
HERNANI

info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com

1990ean sortua



**BRINTZA**  
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA

Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbieta, 15. Hernani.  
943 33 12 67  
Brintza.com

### Zahartzeak ez dizu beldurrik ematen?

Ez. Nik uste dut gorputzak fase bakoitzean badaukala balio bat. Niretzat erreferentea eta irakasle handia den Matxalen Bilbaok dio bere faserik onena izan dela 40 urtetik aitzinera. Bera dantzaria eta sortzailea da eta eszenatokian jarraitzen du. Haren adinarekin dantzan ikustea brutala da. Badu beste esperientzia bat, beste pisu bat... Oroitzapen aunitz daude gorputz horretan islatuak eta hori ere erakargarria da. Jakin behar da gorputza fase bakoitzean aprobetxatzen. Gu orain birtuosismoaren garaian gaude, baina gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari gara mugimendu bakoitzaren inguruan. Adinaren beldur hori gehienbat balletetik datorren ikuspegi zurruna da. Horretan ohikoa da 40 urtetik goiti erretiratu behar izatea, baina dantza garaikidean badago jarraitzeko aukera. Gorputza, azken finean, errelato aunitzen osaketa bat da eta haika istorio kontatzeko balio du.

### Besteok gorputzetik deskonektatua bizi gara?

Pasada bat da. Konexio hori oso eskasa da orokorrean, batez ere Mendebaldeko munduan. Ibiltzeko modua eta gorputzeko mugimenduak ikustea besterik ez dago horretaz ohartzeko. Euskaldunon DNAn zurruntasun aunitz dago.

### Emakumeok konektatuago gaude? Horretarako baimena dugu?

Gure publikoaren %90 emakumea da; tailerren bat egiten badugu %100 emakumeak zarete... Dantzari mutil gutxi gaude, aldiz, koreografo gizon aunitz, eta antzoki zuzendariak are gehiago. Gertatzen da unibertsitatean bezala: ikasleen artean, Fisika ikasketetan adibidez, erdia eta erdia ginen, eta gero doktoretzan emakume gutxiago eta katedradunak are gutxiago.

### Dantza zokoratua dago?

Bai eta neurri batean izanen da gorputzarekin dugun konexio eskasarengatik. Ulertzeko beharra ere sentitzen dugu beti eta dantza emanaldietan jende aunitz galdu egiten da. Uste dut, hala ere, publikoa hasi dela onartzen ez dela deus ere ulertu beharrik baizik eta hara joan, egon eta ibilbide hori gozatu edo sufritu. Arazoa da aunitzetan ez dakigula egoten. Azken urteotan dantzak Nafarroan bultzada pixka bat izan du eta nabari da.

José Lainez eta Concha Martínez izan dira hemen dantza garaikidearen gurasoak, nolabait. Haiek eta gerora etorri diren Carmen Larraz eta beste profesional askok lan handia egin dute garai zailenetan. Oraingoek zortea dugu, oraingo kulturarekiko politikak ez direla UPN-ren garaikoak bezalakoak.

### Nafarroako Talentuaren saria eman dizute aurten. Zer izan da zuretzat?

Hagitz berezia. Kanpotik ematen du gure lana oso polita dela, hemen Lesakan sortu eta Europa osoan gure piezak erakutsi... baina guk egunero galdetzen diogu geure buruari zer ari garen egiten. Nire inguruko jende gehienak badu lan iraunkor bat. Asko irakasleak dira. Neu ere irakaslea naiz eta zerrendetan nago. Denboralditxo batez fisika irakaslea izan nintzen Iruñeko institutu batean... Mundua badoa ez dakigu nora eta gu bitartean dantzatzen ari gara. Zalantza asko dugu buruan eta horregatik sari hau izan zen gure lanari egindako aitortza. Eta poz kolektibo bat aldi berean, dantza saritu dutelako.

### Okerrago dago ikusia gaur egun dantza egitea iraganean baino?

Bai, lastima. Lesakan bertan lehen jende guztia aritzen zen dantzan herriko plazan eta nire nerabezaroan ikusi nuen soilik neskak ateratzen zirela dantzara. Lesakan futbolak badu indar handia eta ailegatzen da une bat non mutilek dantza uzten duten futbolera joateko eta bide horretatik ateratzen dena arraroa da, baztertua...

Nik herrian babes handia jaso izan dut beti, baina jende asko dago bizi osoa bitxo arraroa izan dena dantzatzeari ez uzteagatik.

### Beste dantza motetan ona zara?

Gure helburua da gorputza beti prest edukitzea edozein mugimendu edo dantza motarako. Nik, adibidez, bachataren mugimendu zehatzak ez dakizkit baina ikasiko nituzkeen segidan.

Niri asko gustatzen zait gauean dantzatzera ateratzea. Ez dut ulertzen jendeak nola egiten ahal dituen parrandak bakarrik edaten eta solasean. Hala ere, baikorra naiz. Uste dut gero eta gehiago dantzatzen hasi garela. Aldakak mugitzera irekiago eta animatuago ikusten ditut euskaldunak. Euskal musika ere ari da estilo berriak esploratzen eta agian bide horietatik hasiko gara gorputza gehiago askatzen. ●



## Txikitik eraldatzen

noiz ez nuen pentsatuko kubismo moduan ezaguna den mugimendu artistikoa, erlatibitatearen teoria eta literatura-korronte modernistaren artean lotura egitea; gutxiago, lotura hori zenbakitzen saiatzea. Donostiako Nazioarteko Fisika Zentroan lanean dabilen Schwartz ikertzailearen lana irakurtzeko parada izan dut berriki, eta planteamen- du zinez interesgarria mahaigaineratu du: diziplinen arteko jakintza modu bateratuan aztertzearen garrantzia. Honetarako, aski ezagunak diren Picasso, Einstein eta Joyce hartzen ditu erreferentziatzat; hain justuki, momentu historiko bera partekatu zuten hirurek, eta aurretik zetozkien tradizioekin eten zuten mugimenduen parte izan ziren. Baliteke jakintza alor bakoitzetik garaian zeuden erronka amankomunei erantzun nahi izatea, nolabait, jokamolde kolektibo baten pean egon izan balira bezala.

Autoreak Wikipediako datu-basea oinarri hartuta sareen zientzia erabili du analisirako, hots, hiru autoreak erlazionatzen dituzten artikuluen mapa moduko bat sortu du, zeinak nodulu bitartez irudikatzen diren. Honela, autoreetako baten inguruan pilatutako noduluek, alor horretan sortutako jakintzaren densitatea adierazten dute, eta autoreen arteko espazio horretan kokatzen diren noduluen bitartez uztartzen dira hiru diziplinak amaraun itxurako mapa bat sortuz. Hiru mugimenduen esteka naba-

Espezializazioak  
ekarpen handiak ekarri  
baditu ere, jakintza  
konpartimentalizatu  
egiten duela esatea  
ez da zentzugabekeria

ria dela ikusten bada ere, alor artistiko eta literarioaren arteko lotura nagusitzen da irudian.

Ikerlana irakurtzearekin batera, ezinbestean, gure herriko historia hurbilean uztar genitzakeen mugimenduak etorri zitzaizkidan burura. Gurasoek hainbatetan azaldutako eta Frankoren diktadurapean sortutako hamaika ekimen, esaterako. Kontra-indar hauek askotarikoak izan ziren: euskal kultura sustatu nahi zutenak, literaturan oinarritutako beste hainbeste, eskultura eta pinturari loturikoak ere bai, langileen mugimenduak, musika, feminismitik egindako ekarpenak, gizarte ekonomiaren sustapena, eta, nola ez, hizkuntza biziberritzeoak ere ezin ahaztu. Hala ere, Schwartzen artikuluan sumatzen den gisan, aurrez aipaturiko mugimenduei zientzia esperimental deritzenetan dauden askotariko



IRATI LABAIEN EGIGUREN  
EHU-KO IRAKASLEA

alorretako erreferentziak lortzea nekeza egin zitzaidan. Eta egon, badaude.

Oro har, gurean definituta ditugun diziplinek malgutasunerako tarte txikia uzten dute. Besteak beste, unibertsitatean ere irakaskuntza eta ikerkuntza modu zurrunean egin ohi dira, fakultateetako hormak muga izango bailiran. Espezializazioak ekarpen handiak ekarri baditu ere, jakintza konpartimentalizatu egiten duela esatea ez da zentzugabekeria. Hainbatetan pentsatu dut akademia- ren sorrera hartan eratu ziren diziplinen logikan; geometria, musika, astronomia, matematikak edota filosofia bera elkarri lotutako ikasketa moduan planteatu ziren garaietan, alegia.


Jakintza une zehatz batean dauden arazo edo zailtasunei aurre egiteko egin beharreko galderei erantzunez sortuko da. Garaiak aldatuz doazen heinean, galdera berriak sortuko dira, eta nahitaez, aurretik zegoen jakintza sustraitu egingo da, edota eraldatu. Herri bezala aurrean ditugun erronka global eta lokalek askotariko ertzak dituzte, eta ezinbestekoa izango da guzti horiei diziplina anitzetatik erantzun bateratua ematen saiatzea, ez baitago bat bera ere soberan.

Jakitun naiz, gure herrian, gutariko asko, leku txiki askotatik, gauza txiki asko egiten ari garela. Eta batuz gero, Galea- nok esan zuen moduan, gure mundu txikia eraldatzeko aukera izan dezakegu. ●

# Zer egin gure pribilegioekin?



**JUNE FERNANDEZ**  
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

**M**unduko Emakumeak-Babel elkarreko herri hezitzaile feminista eta antiarrazista den Cony Carranza Castrok pribilegioei eta zapalkuntzei buruzko tailerrak dinamizatzen ditu, xede nagusia pribilegio zuria zertan datzan ulertzea delarik. Bere tailer batean parte hartu nuenean konturatu nintzen partaide zuri askok zapalkuntza gisa aurkeztu genituela bizi ditugun ondoezak. Sara Lafuente Funes soziologoari esker ikasi dut ondoeza eta injustiziaren arteko diferentzia antzematen; batzuetan lausoa izan daiteke, bien iturria egiturazkoa delako (alegia, bizi garen sistema). Esaterako, nik tailerrean zapalkuntza gisa aipatu nuen babes sare handirik gabe amatasunean aritzea, baina gero konturatu nintzen arinkeria handia dela, Atzerritar Legeak guraso diren etorkinak urte askoz haien umeengandik aldenduak bizitzera behartzen diela jakinda.

Orduan, zer da zapalkuntza? Peggy McIntosh ekintzaile estatubatuarraren definizioari heldu dio Carranzak: "Gizartean parte-hartze osoa eta berdintasunezkoa izatea sistematikoki baztertzea". Argi dago hori ez dela nire errealitatea, baina bai emakume etorkin askorena. Eta pribilegioa? "Oinordetzan jaso du-

gun motxila ikusezina". Zuria izateagatik motxila horretan daraman 26 pribilegio zerrendatu ditu McIntoshen artikuluan, hala nola, erosketak egitea segurtasun langileen jazarpena pairatu gabe, edo telebista pizten duenean bere arrazako lagunak barra-barra agertzea.

Desnaturalizatze edo desmekanizatze keinuak izan daitezke lehenengo urratsak; nik neuk nazioarteko bidaiak egiten ditudanean, gogoan dut azal zuria eta pasaporte europarra dudalako egin ditzakedala kezka handirik gabe. Baina zer egin identifikatu eta onartu ditugun pribilegioekin? Intsumisioa proposatu du Bego Oleaga Erdoiziak ARGIAN: "[COVID19aren] Hirugarren txertaketari intsumisioa egitea bi dosi jaso ditugunok, txertaketa herrialde pobretuetako biztanleengana iritsi arte". "Emakumerik gabe ez noa" bezalako egitasmoak ere egin izan dira, gizonez betetako mahai-inguru, sari-banaketa eta abarrei planto egitea eskatzeko. Lehenengo adibideari bueltatuz, nik erabaki dut nazioarteko turismoari uko egitea, unibertsa ez den eskubidea pribilegioa dela ulertu dudalako.

Beste urrats bat izan daiteke zapalduen pribilegiatuok interpelatzen gai-

tuztenean isiltzea, haiek entzutea, gure erresistentzien lanketa egitea eta ardur hartzea. *Aliatu* kontzeptua bogan dagoen garai hauetan, autokritikoak izan behar dugu, eta besteengan (nire kasuan, maskulinitate berrietan lan egiten duten gizonengan) identifikatzen ditugun prozesu maltzurak gudan ere onartzen ikasi. Esaterako, arrazakeriaren kontrako ekintzaile zuria izateagatik, arrazializatuek baino aukera gehiago ditudala hedabideetan agertzeko, ordaindutako kongresuetan parte hartzeko, laudorioak jasotzeko, eta abar. Hala, "Pertsona arrazializaturik gabe ez noa" esatearen konpromisoa betetzen nabil azken urteotan.

Egiari zor, gehiago landu ditugu ahalduzko prozesuak desjabetzerako urratsak baino. Saia gaitzen albokoari eskatzen dioguna gure buruari exijitzen. Animatzen zaituztet Jokin Azpiazu eta Leticia Urretabizkaiaren hausnarketak eta galderak irakurtzera (maskulinitateen eta antiarrazismoaren esparruetan, hurrenez hurren). Enpatia eta apaltasuna izan daitezke zubiak eraikitzeko lehengaiak, gero eta kapazagoak izan gaitzen asmatzeko noiz eman behar dugun aurrera pausoa, eta noiz atzera egin. ●



**MAIALEN ARTEAGA**  
KAZETARIA

## Ezagutzen zaitut?

**A**urreko batean ea ezagutzen zintudan galdetu zidaten, eta ez nuen erantzuten jakin. Bitxia da norbait ezagutzea, edo norbaiten berri izatea ezagutzen duzula kontsideratzeko beste. Nik ere ez dakit zenbat datu behar ditudan, zein irizpide bete behar ditugun elkar ezagutzen dugula esateko.

Sare sozialek eta era digitalaren paradigmak kontzeptuen ulerkera berria eskatzen dute halaberharrez. Harremanen berkontzeptualizazioa, ezagutzarena... Orain edo duela hamar urte norbait ezagutzea ez da gauza berdina. Nik ezberdin ulertzen dut, horregatik ez nuen erantzuten jakin. Berez, ofizialki, ez omen zaitut ezagutzen. Ez gaituzte inoiz aurkeztu, eta orain arteko ulerkeraren arabera, behintzat, pare bat hitz gurutzatu behar ditugu (gutxienez) elkar ezagutzen dugula kontsideratzeko. Edo bitartekariren batek ofizialki aurkeztu, eta bi muxu eman behar ditugu (gutxienez). Orain dela gutxi arte (akaso, pandemia arte) horrela zen. Beraz, ez. Ez dugu elkar ezagutzen.

Ez dugu elkar ezagutzen, baina badakit aurreko asteburuan Alde Zaharrean irten zinela. Badakit beti zerbezak edaten dituzula, eta Marlboro erretzen duzula. Badakit Belako, Rotten XII, Anari, Joancho Marques, Nirvana eta Ruper gustatzen zaizkizula. Badakit mendira

joaten zarela asteburuetan, eta korrika ere egiten duzula osasuntsu mantentzeko. Badakit duela bi hilabete ile apaindegira joan zinela, eta betikoa egin zenuela beste behin. Badakit ebakia hartzen duzula eguerdian. Badakit zein alderdi politiko bozkatzen duzun, eta badakit zer iritzi daukazu txertoen inguruan. Badakit gurasoen kotxea erabiltzen duzula. Badakit zer ikasten duzun, eta zertan ari zaren lanean. Badakit zure koadrillakoak nortzuk diren. Badakit atzo galtzerdi zuriak eraman zenituela, eta badakit zein den irakurri duzun azken liburua. Ezagutzea norbaiten egunerokoaren, pentsaeraren eta egoeraren berri izatea ez bada, ez dakit zer den. Aurrez aurre sekula egon ez bagara ere, harreman birtual horiek gehiago eman didate zure egunerokoaren berri, betidanik nire inguruan, nire herrian, ezaguntzat nituen besteez dakidana baino.

Ez nuen erantzuten jakin, baina berriro galdetuko balidate “erdizka” esatera ausartuko nintzake. Hori bai, espresuki ezagutzea nahi duzun hori bakarrik ezagutzen dut: zure bertsiorik onena, zure argiak, zure talentuak. Azaletik haratago, harreman birtualek ez diezagutela gure plastikozko bertsio onenaren atzeko ukatzera eraman. Ukatzuz gero, ezin ezagutu. Ezagutu gabe, ezin onartu, ezin landu, ezin itzalak argitu. ●

## Fikzioaren gramatika V: (Sisiforen) esplikatiiboak



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

*Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala.*  
*Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala.*  
*Fikzioa omen da errealtatea, fikzioa bera ez bezala.*

A. Alieva

**M**ezuak helarazteko bide eragin-korrik erabiltzen saiatzen zara maiz, gogotik saiatu ere. Alabaina, parean dituzunen begitarteak irakurritan ohartzen zara, nahi baino aise gehiagotan, beste hitz batzuetara jo beharra duzula adierazi nahi duzuna ulertuko bada. Birformulazioan tratatua ibilki zara urtearen azken hilabete honetan; zintzu-

rean arrain hezurra katigatua nola.

Sisiforen harri esplikatiiboen zama gero eta astunago: zintzo azaltzeko lanetan ari zarela, bereziki trinkoa edota maldatsua den emozio batekin topo eginenez gero –eta hori ere gero eta gehiagotan suertatzen ari zaizu– tupust eragiten duzu zure inguru ustez maitean. Eta, negua oraindik ere ailegatzeko dagoen honetan, talka etortzen da bukaeran. Inongo gramatiketan ikusi ez dituzun hiru T-ak, elkarren ondok: Topo, Tupust eta Talka.

“Hau da”, “hots”, “alegia” eta kidekoak baliatzeko trebezia estimatuko zenuke zinetan. Baita isilik egotekoa ere, behar bada. Noiz. Nola. Norekin. ●

# Irabazi arte!



**ENEKO GORRI GANTIER**  
EUSKARA TEKNIKARIA

**U**rte bukaerako giroan murgildurik, gibel mirailean begiratu eta uda huntako bizipenetatik ateratako gogoeta batzuk bota nahi nituzke hemen. Ekainaren 23an, ELB eta Lurzaindiako militanteek hamabi hektareako salmenta oztopatzeko abiatutako okupazioa, Arbonako Berroeta pentzean. Etxetik hiru kilometrotan. Hori oparia! 120 gauz eta 120 egunez milaka herritar aldizkatu dira, erresistentzia horren gorpuzteko: laborari, hiritar, langile prekario, erretretadun uros, militante aritu edota arazoaz kezkatutako herritar xumeak. Aniztasunean.

Berroetako afera ezin zen irabazi, ez politikoki, ez juridikoki. Saltzaile ultra-gurmanta eta erosle hiper-aberats baten arteko afera pribatua zen. Iniziatiba abiatu zutenek untsa ulertu zuten okupaziorik gabe, ez zela aterabiderik. Disuasioa zen, orduan, soluzio bakarra. Eta (zerbait) lortu da!

Arbonan jokatu denak, eta molde orokorrean lurraren aldeko borrokak, badute Davidek Goliathen kontra eramandakoaren itxura zerbait. Lurrarekin espekulatu nahi dutenek, sistema osoa

Garrantzitsua da  
oroitaraztea borrokaren  
bidez irabazten ahal  
direla batailak.  
Herritar xumeak  
izan gaitzke harri  
koxkor horiek

dute alde: legedia, zerga banaketa, oinordekotza araudiak, instituzioen promozio kanpainak, notarioen jarrerak, higiezin agentzien eskrupulu eza... Baina batzuetan harri koxkor ñimiño batek bloka dezake sistemarik gotorrena ere.

Azken aldietan, espero ez zitekeen batailatxo batzuk irabazi dira alor horretan. Berroetan, erosleak erosteari uko egin dio. Urrian, Urkoidarren mobilizazioari esker, 20 milioi euroko negozio zifra duen Pichet immobilier enpresak

jakinarazi du auzo bat eraikitzeke xedea bertan behera utzi duela. Azaroan, Alda kolektiboak eramandako okupazio serie baten ondotik, Airbnb multinazionalak adierazi du legez kontrako hainbat egoera konponduko zituela. Eta bihar, apika, Kanboko Marienia laborantzarako pentze egonen da...

Garrantzitsua da oroitaraztea borrokaren bidez irabazten ahal direla batailak. Herritar xumeak izan gaitzke harri koxkor horiek. Baina ezinbestekoa da tokian tokiko mobilizazio guzi horiei dimentsio orokorrago baten ematea. Ez girelako Urkoien borrokatzen gure auzoaren lasaitasuna mantentzeko, edo AHTaren kontra gure baratzea salbatzeko, edo Lekarozen paisaiak babesteko. Peko errekarera eramaten gaituen logika oso bat dugu borrokatzen. Proiektu txikitzaile hauek ez ditugu nahi ez hemen, ez nihun.

Irabazi arte izan da 'Berroetarron' leloa. Etxebizitza eskubidearen afera, angelu desberdinetatik jorra daiteke. Uste dut on egiten duela ere erratea paturik ez dela eta ez girela galtzera kondentatuak. Segi aitzina, irabazi arte! ●



**Goizper Group**  
Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta garapen teknologikoa Goizper Groupeko enpresa-filosofia parte dira, eboluzionatzeko eta balio erantsiko soluzioak eskaintzen jarraitzeko gakoak. Euskal jatorriko kooperatiba gisa, berdintasuna, ingurumen soziala eta euskal kulturaren babesa balio oso garrantzitsuak dira Goizperrentzat.

Industrialia

Ihinzadura

Bioteknologia



www.goizper.com

# eskatu eskaini EUSKARAZ



**BETIKOA, GERTUKOA.**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SAIALA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**

Euskara

## TXIPEN HORNIDURA KRISIA

# Gailur bat gutxiago, kolapsora bidean

Hornigaien mundu mailako krisiak txip erdieroaleen eskasiarekin jo du goia. Pandemiaren behin behineko ondorio bat dela diotenen aurrean, badira uste dutenak energiaren krisi globalak azaleratutako arazoa dela honakoa. Txipak dira egungo petrolio, eta bere gailurra gainditu dugula dirudi: *peak txip* dei diezaiokeguna. Hala, gure faktoria eta etxeetan ere nozitzen hasi gara, bere mikroan, gailutxo hauen boterea.

 URKO APAOLAZA AVILA

**M**ercedes-Benz automobilgintza multinazionalaren Gasteizko zuzendaritzak ohar labur baina esanguratsua bidali zion enpresa batzordeari joan den azaroaren 19an: hurrengo ostiraleko hiru produkzio txandak eten egingo zituela zioen, piezen hornidurarekin zegoen “ziurgabetasuna” zela-eta. Harri azpian bila ibilita ere, ez zuten nahikoa txip erdieroale aurkitu ekoizpen-katearekin jarraitzeko. Sindikatuak ez zituen sorpresan harrapatu erabaki horrek, 2021eko martxotik hainbat aldiz gelditu behar izan dute fabrika arrazoi beragatik.

Gasteizkoa ez da halako murrizketak jasaten dituen automobilgintzako Euskal Herriko planta bakarra. Iruñeko Volkswagenek ere tantaka gelditu behar izan du hilabeteotan, baina azken geldialdiaren iraupenak kezka areagotu du: azaroaren 26tik Landabengo lantegian ez da zerra elektriko eta bihurkinen soinurik entzuten. Errua, oraingoan, marka horretako ibilgailuek eramaten duten klimatizagailu automatikoa kontrolatze-

---

Ahalik eta gehien  
produzitu, kostu  
gutxiago edukitzeko.  
Hori da  
eskala-ekonomiaren  
printzipioetako bat,  
eta txip erdieroaleen  
kasuan, ezin hobe  
ikusten da


ko txip erdieroale batek dauka, Tailandian egin eta zuzenean ekartzen dena.

VWko UGT sindikatuko ordezkari Alfredo Moralesek Europa Press agentzia-

ri azaldu dionez, “erdieroaleen faltari gehitu behar zaizkio lan egin gabeko eta kobratu gabeko egunak, eta horri gaineratu langileak SEPEren (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) prestazioak ez direla jasotzen ari”. Zenbait kasutan, uztailetik daramate kobratu gabe aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteagatik (ABEE, edo ERTE gazte-razko hizkiz) dagokiena, arazo *burokratikoa* tarteko.

Automobilgintzako enpresa nagusiek pandemia garaian ezarritako ABEEak luzatu edo mantendu dituzte kasu askotan, txip erdieroaleen stock-hausturak sortutako egoera arrazoi moduan jarrita. Gasteizen, Jundizko Mercedes-Benzen plantako langileek, adibidez, badakite abenduaren 27ko aste osoan ez dutela lanik egingo, geratzen zaizkien ABEE egun horiek gastatzeko. Horrek enpresari aukera ematen dio soldaten zati bat aurrezteko SEPEren kontura eta, era berean, txipen faltak sorturiko galera langileen eta erakunde publikoen bizkarren gain jartzeko.





## EGUNGO PETROLIOA

Txipen krisiak 180.000 milioi euroko galerak eragingo ditu europar automobilgintza sektorean, AlixPartners aholkularitza-enpresa estatubatuarrak iragarri eta medio guztiek ponpa handiz argitaratu dutenez. Denera 7,7 milioi auto saldu gabe geratuko omen dira, ez bazaizkie gailu txikitxo horiek konektatzen. Izan ere, beste produktu askotan bezala, egungo auto berriek dozenaka edo zientoka txip erdieroale daramate, motorretik hasi eta barruko ordenagailuraino; herritarra ez da jabetzen auto bat gidatzea “gurpilen gaineko mugikor bat gidatzea” dela, Jaume Portell kazetari katalanak *El Salto*-n azaldu duen bezala.

Txip erdieroaleak dira egungo petrolioa. Autoek ez ezik, edozerk baitu gaur egun txip bat, berdin aparatu elektronik sinpleenek nola arma sofistikatuenek. Mundua mugitzen duten produktu bihurtu dira txip erdieroaleak. Zer gertatu da, orduan, horien falta nozitzeko?

Merkatuaren ekonomian aditu diren askoren iritziz, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko ezarritako itxialdiek eta telelanak aparatu informatikoen eskaria handitzea ekarri dute, eta oraintxe bertan eskari-eskaintzaren koiunturazko arazo baten aurrean baino ez geundekete, 2022an konponduko litzatekeena. Aitzitik, beste askorentzat krisi honek zerikusia du energiaren krisi globalarekin eta sistema neoliberalaren arrakalekin, zehazki, eskala-ekonomiak naturalki dituen mugekin.

## BIRUS BAT BAINO TXIKIAGOAK

Ahalik eta gehien produzitu, kostu gutxiago edukitzeko. Hori da eskala-ekonomiaren printzipioetako bat, eta txip erdieroaleen kasuan, ezin hobekiago ikusten da. Intel multinazionalaren fundatzaile Gordon Moorek 1965ean lege bat iragarri zuen: mikroprozesagailu batean kabitzen diren erdieroale kopurua bikoiztu egingo dela 24 hilabetean behin; horrek hazkunde esponentziala ekarri du gailu horiei loturiko negozioan.


Baina Mooren legeak badu iraungitze data bat, erdieroaleak egiteko silizioarekin eta bestelako material arraroen muga fisikoekin zerikusia duena –besteak beste, erdieroaleak espazio berean ugaritzearen ondorioz sorturiko berotasuna kanporatzea ezinezkoa egiten denean–. Eta data hori 2023an jarri du Intel-ek berak. Egun 7 nanometroko tamaina baino ez duten erdieroaleak produzitzeko gai gara, gripearen birus bat baino txikiagoak, atomo baten azken neurritik gertu beraz.

Gainera, badago beste arazo bat. Sofistikazioa hainbestekoa da, halako erdieroale txiki eta teknologian aurreratutak sortzeko kapazitatea duten bi lantegi baino ez daudela munduan: Hego Koreako Samsung eta Taiwango TSMC. “Mikrotxipen adibideak modu berezian erakusten du eskala-ekonomia batek bere mugak dituela, eta gutxitzen ari den energiarekin eta berlokalizazioarekin, deseskalatzea tokatuko dela”, azaldu du Antonio Turiel ekonomialariak *The Oil Crash* blogean.

Gai hauetan aditua den Felix Moreno idazleak ere zalantzan jartzen du txipen arazoa behin behinekoa denik, bere webgunean datu batzuk eman ditu gailu elektronikoen merkatuari buruz: PCen, telefono mugikorren eta aurikularren salmenta geldirik dago 2017tik, eta 2020an zertxobait goraka egin zuen arren, eskaria berriz ere jaitsi egin da aurten. *Peak txip* batean gaude beraz, petrolioren gailurrak –txipen merkatuan, material arraroez gain, petrolioa ere ezinbestekoa delako– eta eskala-ekonomiaren mugek bultzatuta. “Ez dut beharrik ikusten txipen fabrika gehiago eraikitzeko”, dio Morenok. Beste-zuek ez dute horrela uste ordea.

## EUROPAR BATASUNA BERE DOGMAK HAUSTEN

Azaroaren 18an Margrethe Vestager Europako Batzordeko Lehiakortasun



komisarioak prentsaren aurrean iragarpena egin zuen, nazioarteko merkataritzan aritzen diren askori oharkabean igaro ez zitzaienta: Bruselak txip erdieroaleen produkzioa laguntza publiko bidez sustatzeari atea ireki zion komisarioak. EBren helburua da munduko mikrotxipen %20 Europan bertan ekoiztea 2030. urterako, gaur egungoaren bikoitza. Eta horretarako lantegi erraldoiak eraiki nahi ditu. Bosch eta Intel multinazionalak interesa agertu dute jadanik –azkenekoak 80.000 milioi euro inbertituko ditu hamarkada batean–.

Alde batera utzita EBren erabaki horrek europar ortodoxia neoliberalen ekar lezakeen aldaketa, zeinean lehiapolitika oso arautua eta zorrotza izan den orain arte –Vestagerrek “txeke zuririk” ez dela egongo ohartarazi du, lehiaren dogma horri iltze goriari bezala helduz–, Bruselaren plan horrek baditu oztopo ekonomiko ugari. Izan ere, azken generazioko txipak egiteko lantegi handi horietako bat eraikitzeak 20.000 milioi euro kosta dezake.

90eko hamarkadatik txip erdieroaleen sektorean ekoizle nagusi diren herrialdeek, bereziki Taiwan eta Hego Korea, inbertsio milioidunak iragarri dituzte –Hego Korea bakarririk 400.000 milioi euro jarriko ditu–. AEBetan ere mikrotxipen ekoizpena “segurtasun nazionalako” gaitzat hartu dute eta Arizonan lantegi erraldoiak eraikitzen hasita daude zuzeneko finantzazio publikoarekin (52.000 milioi euro); gainera, Reutersen arabera, aztertzen ari dira %25eko kreditu fiskalaz ere laguntzea proiektu horiek. Bestalde, Morenoren arabera teknologia altuko txipen ekoizpenean lehiatzeko gihar ekonomikoa duen herrialde bakarra Txina den arren, honek Mendebaldearen errezeloa pizten du.

Hortaz, txikira baino, handira egindako hordagoa da Europako Batzordearena. Konturatu gabe, onena dela kartak haustea eta kontsumo, ekoizpen eta hornidura eredu arrazionalagoak sustatzea; energia krisiak ez ditzan herritarren ekonomia errealean kalte handiagoak sortu, auto-fabriketako behin-behineko erregulazio espedienteetatik harago. ●

AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALERAKO OSAGAIK ETA SISTEMAK

- Aplikazio osorako balioa
- 40 urtetik gora "automatizazio adimendunean"
- Ingeniaritza aplikatua
- Neurri egindako soluzioak
- Panelak
- Aurrementatutako sistemak

PNEUMAX, S.A., Olaso Kalea 15, 52-53-54 eraikuntzak, 20870 Elgoibar (GIPUZKOA) Tel: 943 74 41 44 - 74, E.mail: pneumax@pneumax.es, web: pneumax.es



# THANATIAREN ITZALA

Antonio eta Alicia Valero aita-alabari Adrián Almazanek egindako elkarrizketatik atera da *Thanatia*. *Planetaren muga mineralak* (Icaria) liburua. Zaragozako Unibertsitateko katedratikoa eta irakaslea dira hurrenez hurren valeriotarrak. Baliabideak eta energia kontsumoa ikertzen dituen CIRCE Institutuko zuzendaria ere bada Antonio. Egungo norabidean, humanitateak ez duela aterabiderik diote. Eta aldaketa eragiteko poltsa bete proposamenekin datoz. Liburuaren eduki nagusiak bildu ditugu ondoko lerroetan.

**O**so ezaguna da biosferak, Lurra planetaren atal biziak, bizi duen egoera latza. Geosferaz, ordea, geodibertsitateaz, bizitzarik ez duen planetaren zatiaren gainean askoz gutxiago egiten da berba, baina haren egoera ere larria da, batez ere humanitatea baliabideez egiten ari den ustiaketa basatiagatik. Lurra, Gaia edo Gea dira bizitza eta baliabideez lepo dagoen gure planetaren hainbat izen; *Thanatia* baliabide bako etorkizuneko gure planeta da.

## LUR AZALETIK LUR AZPIRA

Liburuaren hitzaurrean Jorge Riechmann idazle eta ekologistak dioskunez, iraganeko gizarteetan ere izan dira arazo ekologiko-sozialak, baina aurrera egitea lortu dute, batez ere ekonomia organiko batean oinarritzen zirelako: "Nekazaritzaren ekonomia, eguzkiaren energiak elikatutako lurrazaleko ekonomia da; gizarte industrial,

aldiz, erregai fosilek mugitutako lurrazpiko ekonomia. Metaforikoki esanda, Iraultza Industrialaren prozesuan, eguzkitik urrundu eta lur azpian sartu zen gure gizartea".

## GAIATIK THANATIARA

Valerio aita-alabak ikertzen dute nola ematen ari den Gaiatik Thanatiarako prozesua. Nola egungo garapen eredia ari den irensten era azkar eta basatian lur azpiko balio minerala, eta zein erritmotan agortzen ari diren baliabide horiek. Azaltzen dutenez, berez, munduko ekonomiak erabiltzen dituen baliabide mineralak lurrean zehar barreiatuta daude, edozein harri koxkorretan, baina oso kantitate txikietan. Gure abantail handia da naturak horietako batzuk meatzetan biltzen dituela, sekulako oparia eginez, eta haietatik, zentzuzko energia maila erabiliz, ekonomia mugiarazteko behar dugun energia lortzen dugula. Baina horrela

jarraituz gero, helduko da une bat lur azpiko mineral edo material horiek lortzeko, ematen digutena baino energia gehiago beharko dugula, eta orduan kontuak ez dira aterako.

### DATOZEN 25 URTEAK

Berez, azaltzen dute ikerlariek, mineralak edo bestelako osagai energetikoak ez dira inoiz desagertzen, ustiari ondoren beti gelditzen dira lurrian, itsasoan edo atmosferan, baina gero eta barreiatuagoak. Hor dago koxka. Eta zenbat eta barreiatuago, are eta energia kostu handiagoa haiek ustiatzeko. Horregatik dira hain garrantzitsuak meatzeak, gehien behar ditugun mineralak bilduta eskaintzen dizkigutelako. Baina mineral kontzentrazio horiek, lur azal osoaren %0,01 eta 0,001 arten besterik ez daude (erregai fosilak barne). Eta oso azkar ari gara hain urriak diren baliabideak irensten. Valeriotarren arabera, naturaren ustiaketa %2,8 handitzen da urtero. Horrek esan nahi du datozen 25 urteetan horrela jarraitzen badugu, gizateriak historia zehar baliatu duen haina baliabide kontsumituko dugula.


### LUR ARRAROAK

Taula periodikoko hamazazpi elementuko taldeari esaten zaie lur arraroak. Uste denaren kontra, lur azalean ugariak dira, baina oso sakabanatuta daude, eta haien kontzentrazio guneak oso gutxi dira. Txinan ekoizten dira munduko lur arraroen %70, eta gero eta gehiago erabiltzen dira egungo gizarte sektore klabeetan, esate baterako, LED argiztapenean, ibilgailuetan edo elektronikan. Adibidez, automobil batek 52 metal desberdin ditu. Kobrea, altzai-

rua eta aluminioa dira autoaren %95, lur arraroak oharkabean pasatuko dira ia, miligramotan daude sakabanatuak han-hemenka, eta klabeak dira haren osagai elektro-mekaniko guztietan. Teluroaren hornitze arriskua oso handia da, adibidez; zilarra, kobaltoa, kromoa, kobrea, galioa, indioa, manganesoa, ez-tainua eta zinkaren hornitze arriskua handia; eta disprosioa, molibdenoa, neodimioa, selenioa eta tantalorena erdi mailakoa. Telefono mugikorretan taula periodikoko 39 elementu daude, eta horietako 13k hornitze arrisku handia izango dute mende honetan, horrela jarraituz gero.

### ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Energia fosilak alboratzeko energia berriztagarrien lasterketan sartu da mundua. Baina honek esan nahi du, karbonoaren menpekotasun bakarretik, hamaika mineral gehiagoren menpekotasunera goazela. Adibidez, 1.000 megawatteko energia sortuko duten 200 aerosorgailu egiteko halako material kopuruak behar dira: 160.000 tona altzairu, 2.000 tona kobre, 780 tona aluminio, 110 tona nikel, 85 tona neodimio eta 7 tona disprosio. Gasarekin energia kopuru bera lortzeko, 25 bider material gutxiago beharko litzateke. Antzekoa gertatzen da energia fotovoltaikoarekin, eta baita baterien alorrean ere: litioa, grafitoa, kobaltoa, nikela, manganesoa eta aluminio kopuru handiak behar dira, eta horietatik, momentuz, aluminioa bakarrik da ugaria. Eguzkiaren eta haizearen energia mugagabeaz aditzen denean, ez da kontuan hartzen haieratik energia sortzeko beharrezkoak diren materialak mugatuak direla.



### ETA NAHI BESTE ENERGIA BAGENU?

Alicia Valerok argi du: "Nire ustez, taino aurkikuntza konponbide baino arazo izango litzateke. Erauztea hain merkea litzateke, mugak jarri ezean planetaren birrintzea azkartuko litzatekeela. Materialak ez ditugu erradiazio gisa eskuratzen, aro geologiko luzetan pilatzen dira lur azalean, baina egungo ekonomiak uste du natura berez leheneratzen dela eta, beraz, ez dagoela amortizatu beharrik. Erauzi bai, baina ez dago suntsiketa kontabilizatzeko sistemarik, ezta suntsitutakoa berrosatu edo berrigiteko modurik ere". Hau da, bere ustez, egon beharko litzateke ohiko ekonomia bat, eta haren paralelo beste ekonomia bat suntsitutakoa leheneratzen, berregiten edo birkonpontzen. Adibidez, zergatik ez sortu natura leheneratzeko zerga? Badugu BEZ Balio Erantsiaren Zerga, zergatik ez Suntsiketa Erantsiaren Zerga? Jakina, hori eginez gero, kendu beharko litzateke lanaren zerga adibidez, bereziki errenta txikienei.

### EKONOMIATIK TERMOEKONOMIARA

Antonio Valerok oroitzen du nola Riechmannek argitaratu zuen Biomimesis liburua 2006an. Bertan azaltzen zen nola izan gintezkeen askoz zoriontsuago gizartearen antolaketan natura imitatuz gero. Ekonomia biomimetikoan, esa-





terako, dena material organikoz egin beharko litzateke, baztertuz naturak berrerabili ezin ditzakeen polimero edo bestelakoak. Biomimesia litzateke ongizate sozialaren lema, eta termoeconomia termometroa. Hau da, erauztearekin ezinbestean hondatzen denez, termoeconomian neurtu beharko litzateke hondamen hori, eta honek lekarkeen erabateko suntsiketarik, hau da Thanatiatik, zein distantziara gauden. Natur baliabideen mugak neurtuko lirateke. Eta horren arabera, gaur egun kontuan hartzen ez diren naturaren kostuak ere bai: zerbait sortu edo erauzteko behar den energia; birgaitze denbora; eta hondatze zehatz bat birgaitzeko behar den lur azalera. Termoeconomia lehene ondo-oria litzateke ekonomia hoztu egin behar dela.

### EXERGIA, NEURGAILU BAT

Zein sistemarekin neurtuko litzateke hau guztia? Exergien bidez. Exergia da termodinamikaren oinarritzeko kontzeptua, eta neurri horrekin ematen zaio balore energetiko bat edozer gauza fisikori, neurtuko dena kilowatt-ordutan. Material bat zenbat eta sakabanatuago dagoen, are eta exergia gutxiago izango du. Hau da, mehatze batek exergia handia du. Eta produktu baten exergia

litzateke, osatzen duten materialen kostu energetikotik eratortzen dena. Adibidez, ordenagailu bat egiteko behar den exergia oso handia da. Lurrari eragindako higadura neurtuko luke exergiak eta kontabilitate honek lagunduko luke gutxiago kontsumituko duten prozesuak diseinatzen.

### BIRZIKLATZEKO ZAILTASUNA

Liburuaren autoreek gordin dihardute gaur egun hainbeste erabiltzen den ekonomia zirkularrak: “Oximoron eder bat da. Ez da posible materia zehatz bat guztiz berreskuratzea. Entropiaren printzipioak beti egiten du degradazioaren alde”. Horregatik, diotenez, espiralaren ekonomiaz hitz egin behar da, eta bilatu espiral horietako bakoitza ahalik eta errentagarriena izan dadin hondakinen kantitateari eta kalitatea berreskuratzeari dagokienez. Haien iritziz, gizate-riaren mende honetako jardura ekologikorik garrantzitsuena izan beharko litzateke hondakinen birziklatzea eta berreskurapena: “Naturak bere hondakinak birziklatzen ditu, gure gizarteak ez daki eta, gainera, ez dio axolarik. Naturatik ikasi behar dugu, zikloka bizi eta hauek itxi”.

Erauzketaren ondorioak ez dira onak, Alicia Valeroren esanetan: “Baliabide

gehienen produkzio gailurra mende hau amaitu aurretik etor liteke, eta askorena 2050a baino lehen”. Eskasia hori dagoe-neko nabaritzen hasi gara, bai produktuen garestitzearekin bai hornidura arazoekin. “Aurrerantzean ohikoa izango da denda batera sartu eta eskatzen duguna ez izatea”.

“Ekonomiaren birformulazioa –diote aita-alabek– mugimendu politiko eta sozioekonomikoa da, oinarritzen dena ekonomia ekologikoan, ekologia industrialean, eta natur baliabideak finitutzat hartzen dituen etikan”. Eta gaur gaurkoz, dena esateko, ez dira oso baikorrak. ●

**DATU PERTSONALEN BABESA**  
**EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen  
lagunduko dizugu



**SIGACUS**

☎ 943 453 588 · [www.sigacus.com](http://www.sigacus.com)



# Bi arazo larri irtenbide bidean jarri behar ditu hezkuntza akordioak: euskalduntzea eta segregazioa”

## Ikoitz Arrese

EA Erako Hezkuntza Legea helburu, hezkuntzan akordioa lortzeko bidea hasi dute Eusko Legebiltzarreko alderdiek. EH Bilduk bere hezkuntza proposamena aurkeztu du, Euskal Herri osoa xede duen arren abiapuntua EA En jarrita. Hautsak harrotu dituen proposamenaz, publikotasunaren kontzeptuaz, finantzazioaz, udalen rolaz, ikasleen segregazioaz, hizkuntza ereduez, eskolek izan behar luketen autonomiaz... galdetu diogu Ikoitz Arrese EH Bilduko Hezkuntza idazkariari.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DOSPORDOS

**EH Bilduren proposamenean, Ikastolen Elkartek urteotan defendatu duen publikotasun kontzeptua darabilzue: sare publiko nahiz itunpeko ikastetxea izan, publikoa izango da -eta %100eko finantzazio publikoa jasoko du- betebeharrak eta eskubide batzuk betetzen dituen ikastetxe oro. Beste hainbat aholkek aldarrikatzen dute izaera publikoa aitortzeko egokiena dela itunpeko ikastetxeak zuzenean publikatzea, alegia sare publikoan integratzea.**

1993ko hezkuntza legetik datorren gai gatazkatsua da hau eta iruditzen zaigu orduko publikazio eskema errepikatzea akatsa litzatekeela. Alderdi sozialistak eta EA Jk gainerako alderdien eta hezkuntza komunitatearen parte-hartzerik gabe adostutako itunaren ondorioz etorri zen 93ko publikazio

prozesua. Publikazioak helburu oso konkretuak zituen -ez estatala izango zen hirugarren eredu bat sortzeko aukerari atea erabat itxiz-, ekarri zuen ikastolen asimilazio hutsa sistema publikoan eta sortu zituen oraindik askatu ez diren korapilo asko. Orduetik ikasitako guztia-ekin eta begirada berriarekin planteatu dugu publikotasuna: lar asimilatua dugu eredu publiko bakarra existitzen dela eta eredu publiko hori zentralizazioari eta administrazioaren erabateko kontrolari lotuta dagoela, baina badira bestelako eredu publikoak, Ipar Europan, Kuban, Portugalen... Haiengandik ikasi eta Euskal Herriko errealtateak egokitu ditugu, hemen dagoen herrigintzarako kultura aintzat hartuz. Guretzat, ikastetxearen titulartasunetik harago, eredu publikoko ikastetxea da euskal herritar orok izan beharko litzuzkeen hamahiru eskubide betetzen dituen ikastetxea, ad-

ministratioaren baina baita herritarren parte-hartze komunitarioaren uztartketan sinesten dugulako. Kontuan har dezagun gainerako zerbitzu publikoak administrazioak sortu dituela, baina herri honetan hezkuntza ez duela administrazioak bakarrik sortu eta herrigintzak ere ekarpen oso inportantea egin duela egun dugun hezkuntza sisteman. Udalek berebiziko garrantzia izango duten eredu publiko deszentralizatua- ren alde egiten dugu, ikastetxeen auto- nomia oinarri.

**Deszentralizazio horretan, udalek hezkuntzan funtsezko rola izatea proposatzen duzue.**

Gure hezkuntza lar zentralizatua, lar burokratizatua eta lar urrun dago ikastetxeen errealtateetatik eta eredu piramidal horri buelta eman nahi diogu, behetik gora eraikitako hezkuntza ere-



dua izan dadin. Frogatuta dago herritarren parte-hartze handiena eragiten duten instituzioak instituzio lokalak direla, herritarrengandik hurbilen daudenak, herritarren beharrak ongien asebetetzen dituztenak. Pandemia garaian, behar zituzten ikasleei ordenagailuak eta wifi konexioak bermatzen eraginkorrenak instituzio lokalak izan dira. Udalei eskumen handiagoak esleituz kalitatezko hezkuntza hobea bermatzeko bidea egiten ariko garela iruditzen zaigu. Hezkuntzako Ekosistema Kolaboratiboak ere proposatu ditugu, udal mailako hezkuntza kontseilu lotesleak, herriko ikastetxeak eurak ere parte liratekeenak –lehen azaldutako eredu publikoan sartzen diren horiek-. Planteatzen dugun eredu titularitate harago badoa ere, titularitatea bera ulertzeko modua eraldatzen du, tokiko instituzioei esleitzen dizkiegulako hainbat eskumen: hezkuntzaren planifikazioa, ikasleen matrikulazioa eta bitarteko kudeaketa.

“

1993ko publikazio prozesua errepikatzea akatsa litzateke. Ekarri zuen ikastolen asimilazio hutsa sistema publikoan eta sortu zituen oraindik askatu gabeko korapilo asko”

**Diozun moduan, ikasleen matrikulazioa maila lokalera daramazue. Hain justu, ikasleen matrikulazioan ematen den segregazioa liskar iturri nagusietakoa da gaur egun.**

Hizkuntzarekin batera, segregazioa da gure hezkuntzak daukan hutsune handiena eta segregazioa matrikulazioarekin guztiz lotuta dagoela ulertzen dugu. Gaur egungo matrikulazio ereduak ez du funtzionatzen eta aldatu beharra dago. Irizpideak Hezkuntza Sailak finkatzen jarraitu beharko lukeela uste dugu, baina irizpide horien araberrako kudeaketa udalek egin beharko luketela, Katalunian ere ereduari tiraka. Matrikulazioan ematen diren gatazkak ez daitezke eztabaidatu urruneko mahaitan, ikasleak zenbaki hutsu biltzean, aipaturiko tokian tokiko hezkuntza kontseiluetan baizik, bertako errealitatea kontuan hartuta. Vic herrian adibidez, Katalunian, zailtasunak zailtasun baina lortu dute parte-hartze komunitarioa oinarri hartuta segregazioari buelta ematea. Edo Oreretan adibidez, proba pilotua egiten ari dira duela lau urtetik, matrikulazioan esku hartzen du udalak, eta momentuz emaitzak positiboak izaten ari dira.

**Segregazioarekin batera hizkuntza da hutsune nagusi, diozu. EH Bilduk –eta beste hainbat eragilek aspalditik– A, B eta D ereduak gainditzea eta murgiltze eredu orokortzea proposatzen du. Areago, izaera publikoko ikastetxe izateko eta finantzazio publikoa lortzeko zehazten dituzuen betebeharren artean dago murgiltze ereduko ikastetxe izatea. Zaila dirudi puntu honek Legebiltzarraren adostasuna lortzea, urtetan muzin egin baitio eskaerari EAJk.**

Euskara da herri honetan kohesio soziala bilatzeko tresna nagusia eta ikasle orok Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean euskara gaitasun egokia izan behar du, hezkuntza sistemak hala bermatu behar dio. Baina ez da gertatzen, D ereduak berak ez du bermatzen, eta horregatik egiten dugu proposamena. Proposamen hau aurrera ateratzea posible ote den? Guk Legebiltzarrera ekarri genuen aurreko legegintzaldian, eta ez zen aurrera atera, jakitun gara horrelako eredu batek ez duela adostasun po-

litikoa lortuko, baina Legebiltzar honek bai adostu du derrigorrezko eskolaldia bukatzean Europako irteera profilak izan behar dituztela ikasleek hezkuntza arloan [euskaraz ere maila jakin bat lortu behar dutela].

**Orduan, ez duzue adostasunik aurreikusten puntu horretan –izaera publikoa lortzeko ikastetxe guztiei murgiltze eredu eskatzea–? Hezkuntza akordioa lortzearren, zertan amore emateko prest zaudete?**

Gauza bat da zer proposatzen dugun eta bestea akordioa lortze bidean batzuk eta besteak zer adosteko prest egongo garen. Eratu den Hezkuntza batzordeak orain arte entzundako aditu eta eragileen ponentzietan, momentuz, ez dugu entzun murgiltze ereduaren kontra dagoen eragilerik. Ikusiko dugu.

**Izaera publikoa lortzeko ikastetxeen betebeharretan jarri duzue baita ere laikotasuna. Kristau Eskola kanpoan uzten du zuen proposamenak?**

Berriz diot, gauza bat da gure proposamena eta bestea balizko akordioan zein izango den emaitza. Guk argi dugu proposatzen dugun sistema publikoa erabat laikoa dela. Dena den, trantsizio gisa Nafarroako gehiengo aurrerakoiak onartu duena proposatzen dugu: LOMLOEk markatzen dituen gutxieneko erlijio orduak izatea gehienezko erlijio orduak gurean. Kristau Eskolak hori onartzeko prest baleude, sistema publikoko parte lirerateke, eta bestela sare pribatuko kide, gure proposamenaren arabera.

“

Udalei eskumen gehiago esleitzea proposatzen dugu: hezkuntzaren planifikazioa, ikasleen matrikulazioa eta bitartekoen kudeaketa”



**CURRICULUMA.** “Euskal ikastetxeetako curriculumak sortzen duten argialetxeen %60tik gora Espainiako ikuspegia duten argialetxe espainiarrak dira”



**Irudikatu ikastolak adibidez proposatzen duzuen sistema publikoaren parte izatea eta Kristau Eskola kanpoan geratzea; ez dirudi Legebiltzarreko gehiengoak halakorik onartuko lukeenik.**

Pentsa, hezkuntza sistema osoaren %35 da Kristau Eskolaren sarea EAEn. Guk planteatzen duguna da egungo eskola publikoak eraldaketa bat egin behar lukeela, berdin ikastolek, eta berdin Kristau Eskolak. Eta besteak beste, iruditzen zait Kristau Eskolak egin beharko lukeen eraldaketan gauza nagusietako bat dela erlijioa alde batera uztea, eta Nafarroan lorturiko kontsentsua izan daiteke EAera ekarri dezakegun eredia, bere kontraesan guztiekin.

**Ikastetxeen autonomia, autokudeaketa eta autogobernantza aldarrikatzen duzue. Arriskua dago irakasleen kontratazioa nahieran egiteko?**

Proposatzen dugun eredu publikoaren parte diren ikastetxeetan, kontratazio guztiek gardenak izan behar dute eta administrazioak ikuskari lanak egin behar ditu hori bermatzeko. Gaur egun dugun EPE Enplegu Publikoaren Eskaintza eredia erabat zaharkituta dago, oraindik Madrilen esku, eta trantsizio fase batean makro-azterketak ez bestelako EPE eredu bat jarri beharko litzateke martxan, baita langileen behin-behinekotasun tasa ikaragarria amaitzeko mekanismoak ere, benetan hezkuntza proiektu egonkorak nahi baditugu. Aukera berdintasuna bermatzeko modu bakarra ez da EPEa eta guk zero kilometroko hezkuntzaren alde egiten dugu, gertuko profesional eta gertuko parte-hartzea bultzatuko duena; zentzu horretan, ohikoena izan beharko litzateke irakasleek ere gertuko ikastetxeetan eduki ahal izatea lanpostua.

**Ikastetxeen autonomiarekin jarraituz, arriskua dago nor bere plangintza eta eskaintza bultzatuz lehenengo eta bigarren mailako ikastetxeak sortzeko?**

Konfiantza dugu ikastetxeen hezkuntza proiektuetan. Zer gertatzen da? Gaur egun ikastetxeek ez dutela nahikoa lidergo pedagogikorik, ez nahikoa bitartekorik, ez behar besteko autonomiarik hezkuntza proiektuak behar bezala garatzeko. "Ikastetxe bat, hezkuntza proiektu bat" filosofia aberasgarria da jendartearentzat eta hezkuntza sistemarentzat, eta autonomiarekiko beldur hori kendu nahi dugu, ikastetxeek parte hartuko luketelako tokian tokiko hezkuntza kontseiluetan eta bertan bai udalek bai Hezkuntza Sailak ere parte hartuko luketelako, konfiantza faltarako zirrikiturik balego esku hartuz.



Murgiltze eredia ikastetxe guztietara orokortzeko gure proposamena ez zen aurrera atera aurreko legegintzaldian. Jakitun gara ez duela adostasun politikorik"

Gainera, lehenengo eta bigarren mailako ikastetxeak diozu, baina gaur egun ikastetxe mota ezberdin asko dago, ikastetxe bakoitza puntu batean dago eta ikastetxeak duen ahalduntze maila

erabat ezberdina da; guk planteatzen ditugun hezkuntza kontseiluak orekatzailak lirateke, baliabide gutxien duenari gehiago emanaz, kalitatezko hezkuntza proiektu bat garatzeko aukera izan dezan.

**Euskal kulturaren transmisioak garrantzi handia du zuen proposamenean, eta curriculumetan transmisio hori bermatuko lukeen institutua sortzea planteatzen duzue. Egia da Espainiako eta Frantziako legeek baldintzatzen dutela gure hezkuntza curriculumaren baina adibidez, curriculumaren %50 gure administrazioen esku dago Hegoaldean. Nola baliatzen da - baliatzen al da- eskumen hau?**

Euskal ikastetxeetako curriculumak sortzen duten argitaletxeen %60tik gora Espainiako ikuspegia duten argitaletxe espainiarrak dira. Euskal kulturaren transmisioa kolokan dago, besteak beste euskal eduki eta jakintzaren aldeko hezkuntza politika tinkorik ez dagoelako Jaurlaritzatik, eta beraz ikastetxeeko hezkuntza proiektuaren arabera eta irakasleek duten katedra askatasunaren arabera definitzen dira eduki horiek. Azken adibidea da Cristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu ohiak atera zituen dekretu curricularrak -Heziberri delakoa-, zeinak ziren LOMCeren euskarazko bertsioa. Horri aurre egiteko -eta jakinda gure nahia dela curriculumaren %100 gure esku izatea-, trantsizio fasean planteatzen duguna da curriculumaren kudeaketan dugun %50eko eskumena muturreraino baliatzea eta modu kolaboratiboan egitea; ez izatea orain arte bezala Hezkuntza Saila dekretu bidez curriculumak zehaztuko duena, baizik eta curriculumak osatze-ko Euskararen eta Euskal Kulturaren

**HIZKUNTZA**  
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"  
Antoine de Saint-Exupery

Jabekuntzarako institutua sortzea, eta bertan parte hartzea Hezkuntza Sailak, euskal argitaletxeek eta hezkuntzako profesionalak –Agora filosofia elkarteak kasu edo hezkidetzan lanean egunero ari direnak...–, denen artean euskal curriculum osatzeko.

**Cristina Uriarte aipatu duzu. Zortzi urtetako bere legegintzaldian, akordio arrastorik ez genuen ikusi EA Erako Hezkuntza Legearen bidean. Orain, badirudi hezkuntza akordioa gertu dutela Eusko Legebiltzarreko alderdiek eta Iñigo Urkulluk dagoeneko hurrengo urterako iragarri du Hezkuntza Lege berria. Zer gertatu da?**

Azken bi legegintzaldietan izan dugun Hezkuntza Saila erabat hermetikoa eta planteamenduetan itxia izan da, inposizioz eta elkarrizketa barik jardun du. Legegintzaldi honetan bai sailburua bai ekipoa aldatu da Hezkuntzan, eta gertatu den bakarra da beste Hezkuntza Sail bat dugula eta kolapso egoera baten atarian egon daitekeen hezkuntza eredu honen aurrean denok ariketa egin dugula inflexio puntua markatzeko, baldintzak ikusi ditugulako hitz egiten hasteko. EH Bilduk sorreratik defendatu du hezkuntzak herri akordioa behar duela, gero legeari bide emango diona, eta akordioa lortzeko lehenengo fase horretan gaude. Kanpotik akordioa egintzat eman dezake hainbatek, baina akordioa gaur-gaurkoz ez dago eta akordioa izango da Legebiltzarreko Hezkuntza batzordeak adosten duena, eragile eta adituengandik jasotzen ari garen ponentzia guztiak entzun ostean.

**Hortaz, akordiorako baldintzak daude, baina ez dirudi Hezkuntza Sailak duen hezkuntza ulertzeko modutik gertu dagoenik EH Bildu. Adibiderako, Gasteizen Euneiz unibertsitate pribatua zabaltzea onartu berri da Hezkuntza Sailean dauzaten botoekin, eta zuek gogor kritikatu duzue proiektu hori.**

EAJk eta EH Bilduk, edo Hezkuntza Sailak eta EH Bilduk hezkuntza eredu ezberdina dugu, eta horren adibide da ez bakarrik Euneiz, baita ere EH Bilduk hezkuntzari lotuta proposaturiko gauza gutxi onartu dituela Legebiltzar honek, gauza askotan ez dugu adostasunik lortu EAJrekin. Baina hori esanda, egia da hitz egiten hasteko eta balizko akordio bat lortzeko borondatea agerikoa izan dela



Marra gorririk gabe sartu gara hezkuntza akordioa lortzeko prozesuan, kontua da zertan egingo dugun guk indarra”

ikasturte hasieratik, bi alderdien partetik. Eta gainera pozten gaitu ikustek Hezkuntza sailburuak aipatzen dituela ez bakarrik EH Bilduk proposamenaren dituen gauza asko, baita hezkuntza komunitateen aldarrikapenak ere, dela udalen rola, zuzendaritzek behar duten eraldaketa pedagogikoa, ikastetxeen autonomia... Norekin egiten dugun bat begiratu ordez, zertan egiten dugun bat, hori da guretzat inportantea.

**Akordioa lortzeko, zertan amore emateko prest zaudeten galdetu dizut. Beste era batera egingo dut galdera: zertan ez duzue amore emango?**

Akordioa lortzeko batzordean, gure proposamenaren baitan ari gara lanean, baina kontziente gara ponentzien

entzute fase baten eta negoziazio prozesu baten ondorio izango dela akordioa, eta hortaz ez bakarrik alderdiek, agian hezkuntza komunitateak ez dela gure proposamenarekin guztiz bat egingo edo proposamena hobetzen duten ekarpenak egingo dituela. Guk gure militanteekin konpromiso bat hartu dugu: akordioa dena delakoa, EH Bilduren batzar batek berretsi beharko du, eta akordioaren inguruko gure azken bozka bilkideek erabakiko dute.

Eta zure galderari erantzunez, zeri ez geniokeen iskin egingo? Marra gorririk gabe sartu gara prozesu honetan, kontua da zertan egingo dugun guk indarra, eta nagusiki hiru parametrotan egingo dugu: batetik, hezkuntza sistemak eraldaketa sakona behar du, akordio honek ezin du adabakia izan; horrez gain, bi arazo larri irtenbide bidean jarri behar ditu akordioak: euskalduntzean jauzia eman behar da eta segregazioari aurre egiteko mekanismoak definitu behar ditu. Hori guztia, jakinda akordioaz ari garenean ez garela legez ari, eta akordiotik legerako bidea ere korapilatsua izango dela, lana eskatuko duela.

**Zuen hezkuntza proposamenaren harira, ikastolak eta eskola publikoa mokoka aritu dira.**

Hau guztia positiboan irudikatzen dut: ikasturte honetan lortu dugu hezkuntza politikaren afera eztabaida politikoaren erdigunean kokatzea. Egia da kasu askotan 140 karakteretan eman dela eztabaida, sare sozialen bidez, eta ez dugunez modu hori konpartitzen ez gara hor sartu. Lar inportantea da hezkuntza herri honentzat eta luma finaz egin beharreko eztabaida dela uste dugu, sakon.

**Hezkuntza akordioa lortzeko bidean, ehun bat eragileren ponentziak entzuten ari zarete Legebiltzarrean egunotan. Orain artekotik, zer azpimarratuko zenuke?**

Denek bi kontu aipatu dizkigute: batetik, hau aldatu behar dela eta gure hezkuntza sistema birformulatu behar dela; eta bestetik, denek animoak ematen dizkigute, esaten digute erronka galanta dugula baina aukera pasatzen ez uzteko. Orain da momentua. Bestalde, deszentralizazioaren eta udalen parte-hartzearen ideia ere errepikatzen ari da, hezkuntzari lotuta politika lokalen aldeko diskurtsoak entzuten ari gara. ●

Saioa Jaurena, errugbi jokalaria

# “Bortxaz jokatzek batu egiten gaitu errugbilariok”



Ekuazioak nola, hala askatzen ditu melek Saioa Jaurenak (Elizondo, 1989). Kalkulagailua eta baloi obalatua ditu lanabes, matematika irakaslea eta errugbilaria den heinean. Bi alorrek halabeharrez uztartu behar ditu: errugbian ez du sosik ere jasotzen, Frantziako maila nagusian diharduen arren, Baionako Neskak taldean. Bizimodu horri “sakrifizioak eginez” eutsi dio, baina ez da damutzen, ibilbide oparoa osatu baitu hamasei urtez.

✂ EÑAUT AGIRREBENGOA 📷 DANI BLANCO

**E**gina zuen kalkulua Jaurenak: denboraldi hau izango du azkena errugbian. Zer diren gauzak, litekeena da agurra berak nahi baino lehenago eta nahi ez lukeen moduan heltzea, ASBko nesken taldea Elite mailatik erretiratu baitzuen zuzendaritzak azaroaren 17an, jokalariek partida batean plan to egin ostean euren baldintzak salatzeko. Apur bat lehenago egin genion elkarrizketa elizondoarrari; artikulua hau ixtean, irtenbiderik ez zaio eman oraindik auziari. Gertu dakusa Jaurenak



botak erantzi eta zenbaki artean buru-belarri murgiltzeko tenorea.

### **Eskubaloia izan zen zure lehen kirola, baina errugbia aukeratu zenuen gero. Zer dela eta?**

Errugbian benetan neroni sentitzen naiz. Dena den, beti esan dut: errugbia utzi eta beste kirol bat hautatu beharko banu, eskubaloia izango litzateke. Biak dira talde kirolak, eta kontaktua oinarritzeko osagaia da. Ordea, bada gauza bat errugbia berezi egiten duena: aurkariarekin talka egiterakoan, beti behar dituzu bizpahiru taldekide ondoan, harroin postuan batez ere. Eskubaloian, kontaktuak buruz-burukoak izaten dira batez ere.

### **Hamasei urterekin hasi zinen errugbian jokatzeko; hasiera batean, mutilekin. Hastapenak nola oroitzen dituzu?**

Garai onean hasi nintzen errugbian. Gaur egun, badira sei edo zortzi urterekin jokatzeko hasten diren neskek. Lehen, ordea, bestelakoak ziren gauzak: nire adineko batzuk unibertsitate garaian hasi ziren, pentsa. Nik Baztanen egin nuen proba, mutilekin, ez baitago nesken talderik. Hamar bat neska elkartu ginen, eta han ezin genuen partidarik jokatu: hamasei urte arte osa daitezke soilik talde mistoak. Guk entrenatu besterik ezin genuen egin, eta Iruñera joatea erabaki genuen azkenean.

### **Nerabezaro batean, errugbiak pertsona bezala garatzen lagundu zizun?**

Hala da. Dena elkartu zen: ate asko ireki zitzaidan, nire antzeko zaletasunak zituen jende asko ezagutu nuen... Adin zailak dira, zure nortasuna eraikitzen ari da, eta oso garrantzitsua da gauzak ongi egiten dituzula sentitu, eta zure lana baloratzen dela ikustea. Konfiantza lantzeko aukera eman zidan Iruñeko esperientziak. Leku berri batera joan nintzen, pertsona berrieekin kirol berri batean jardutera, eta pauso hori nik eman nuen, ez nire gurasoek.

### **Noiz sentitu zenuen errugbian bidea egin zenezakeela?**

Taldekide batek erraztasun handia nuela esaten zidan. Ez nion kasu handirik egiten, baina gauzak aldatzen hasi ziren pixkanaka. Izan ere, prestaketan koska bat igotzean, nire jokoa asko hobetzen zen, eta asko gozatzen nuen. Garapen

horren berri izateak asko animatzen ninduen. Esfortzua egitean, beti jasotzen nuen saria. Nahiko goiz izan nuen aukera Euskadiko selekzioan jokatzeko, baita Lehen Mailan debuta egiteko ere.

### **Getxok eman zizun Espainiako maila nagusian jokatzeko aukera. Eta gero, Zeelanda Berrian aritu zinen urtebetez. Nola sortu zitzaizun hara joateko aukera?**

Errugbiaren kultura oso indartsua da han, eta ametsa zen han jokatzeko. Aukera hori beti zebilkidan buruan. Egun batean, Zeelanda Berrian zegoen ezagun batekin hitz egin nuen, eta han egoteko baldintzak zeintzuk ziren azaldu zidan. Izan ere, gauza bat da oporretan joatea, eta beste bat egonaldi luze bat egitea. Baimena erdi zozketaz lortzen zen, eta inori ezer esan gabe eskatu nuen, zortetik izango ez nuelakoan. Bada, tokatu egin zitzaidan, eta etxeokoa konbentzitu, harat joan nintzen. Unibertsitate ikasketak bukatu berri nituen, eta oraindik ez nintzen lan egiten hasia. Momentu ona zen.

**“Errugbiak ikaragarri lagundu nau nire burua ezagutzen, eta bizipen aldetik ere asko eman dit. Zoriontsu egin nau”**



### **Nolako esperientzia izan zen?**

Aparta: hango selekzioko jokalaria batzuekin batera jokatu nuen, eta beste batzuen aurka. Errugbia oso modu ezberdinean bizi dute; mundu guztiak ezagutzen du eta edozein tokitan ikusi daiteke. Eskuak zabalik hartu ninduten hango klub batean, eta maila oso altua izan arren, jokatzeko aukera ugari eskaini zidaten. Askok ikasi eta gozatu nuen.

### **Ettxera itzulita, Baionan hasi zinen jokatzeko, Frantziako maila nagusian. Alde handia dago Espainiako ligarekin?**

Frantziako liga beste zerbait da. Baionako neskek maila nagusira igo berriak ziren, eta itzultzeko aukera eskaini zidan entrenatzaileak, aurrez denboraldi bat jokatu nuelako han. Beti hartu behar

izan dut autoa entrenatzera joateko, eta Baionakoa aukera perfektua zen: etxetik nahiko gertu eta liga askoz ere indartsuago batean joka nezakeen. Ingurune aproposa zen, aurrez ezagutzen nituen taldekide batzuekin. Euskaraz aritzeko aukera ere hor zegoen. Frantziako ligan jokatzeko arras ongi etorri zait, kontaktu maila eta entrenamenduen exigentzia handiagoa delako. Nire tokia egin dut pixkanaka, eta bertakoa ez naizen arren, etxean bezala sentitzen naiz.

### **Gatzka piztu zen duela aste batzuk: partida batera ez aurkeztea deliberatu zenuten, klubeko baldintza txarrengatik protesta egiteko.**

Egia da klubak laguntza gutxi ematen digula, baina ez nago ados kexa adierazteko hautatu den moduarekin, eta nahiago dut gaiak ez hitz egin.

### **Orokorrean, zer baldintzatan diharduzue Frantziako ligan?**

Gaur egun, klub askok zerbait ordaintzen die jokalariei, baina liga ez da profesionala. Inor ez da errugbitik bakarrik bizi. Salbuespena, Frantziako selekzioan jokatzeko dutenak dira, Federazioak lantaldi erdiko kontratua egiten dielako. Neska horiek kontratu horrekin eta klubak ematen dienarekin bizi dira. Baina ez dute, inolaz ere, mutilen dirutzarik jasotzen. Haien ligak sekulako indarra du. Aldea sekulakoa da, Espainian futboleant gertatzen den bezala. Klub mailan, nik ez dut sekula dirurik jaso errugbian jokatzeko; hau da, beti lan egin behar izan dut errugbian jokatzeko jarraitu ahal izateko.

### **Matematika irakaslea zara. Bada, buruketa zaila ebazti behar duzu egunero, lana, kirola eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko.**

Zaila da, ez dizut gezurrik esango. Egunean zortzi orduz lan egin behar dut, eta gero asteen hirutan Baionara joan behar dut entrenatzera. Gainera, egunero gimnasio lana ere egin beharra dago, eta bestelako ariketa batzuk ere bai. Hortik kanpo ez zait ia denborarik gelditzen, eta halabeharrez, sakrifizioak egin behar dituzu. Aurreko ikasturtean sei hilabetez egon nintzen soilik entrenatzen, Espainiako selekzioaren proiektu bati esker. Eta argi ikusi nuen zenbatekoa den aldea: ondo deskantsatu eta entrenamenduak ondo egituratzen badituzu, zure errendimendua hilabetero hobetzen da.

**Halere, egin beharreko sakrifizio guztiek merezi dute. Bestela, errugbia lehenago utziko zenukeen.**

Garesti ordaintzen da, baina bai, merezi du. Pertsona bezala ondo sentiarazten zaituen giro batean zaudenean, zergatik utzi? Askok murriztu behar izan dut familiakoei eta lagunei eskainiako denbora, baina errugbia orain bizi beharreko zer-bait da. Gero ez dut izango. Pentsaera hori izan dut urte hauetan. Benetan eza gutzen nauenak badaki kirolak zenbat ematen didan.

**Zer da, zehazki, errugbiak urte hauetan guztietan eman dizuna?**

Errugbiak ikaragarri lagundu nau nire burua ezagutzen, eta bizipen aldetik ere asko eman dit. Zoriontsu egin nau. Garaipenekin edo garaikurrekin baino gehiago, taldekideekin bizitako momentu bereziekin gelditzen naiz.

**Elkarren aurka talka egiten duzue behin eta berriz, eta halere, kiroltasun handiz lehiatzen duzue errugbilariok. Hirugarren denbora delakoa ere hor dago, partiden ostean aurkariekin solas egiteko.**

Zelai barruan bortxaz jokatu beharreko egoera asko dago, eta horrek batu egiten zaitu bai taldekideekin, baita aurkariekin ere. Kanpotik oso kirol bortitza dirudi, baina gogortasunak elkartu egiten gaitu. Azkenean, kontaktua kirol honen oinarritzeko osagaietako bat da, eta badakigu talka egiterakoan nola jokatu behar dugun.

**Garbi gera dadila: errugbia eta futbol amerikarra ez dira gauza bera.**

Baloiak forma bera du, baina ez dute zer ikustekorik. Legeak zeharo desberdinak dira: adibidez, futbol amerikarrean edozein tokitara pasa dezakezu baloia, eta edozeini egin diezaiokezu plakaketa, baloia eskuetan izan ala ez.

**Zer ezaugarri behar da errugbilari ona izateko?**

Sakrifizioa eta konstantzia, kirol guztietan bezala. Bestalde, nik fisiko indartsua behar dut, harroin postuan jokatzen dudalako. Soslai oso desberdinak daude taldean. Aurrean jokatzen dugunok indar lan gehiago egin behar izaten dugu. Atzean daudenek, berriz, abilezia eta abiadura landu behar dituzte.

**Espainiako selekzioarekin hurrengo Munduko Txapelketarako**



Saioa Jaurena hamasei urterekin hasi zen errugbian jokatzen. Baionako Neskak taldean ari da aurtten, egoera korapilatsua bizi duen klubean. "Datorrena ona izango da, baina mingarria da pasioz bizi izan dizun hori atzean uztea", dio, agurra geroz eta gertuago ikusten duen honetan.

**sailkatzea zen zure ibilbideko azken erronka handia, eta ez da posible izan. Porrotak azkartu egin al du erretiratzeko erabakia?**

Aurretik argi nuen Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketako bidea bukatu arte jarraituko nuela. Dena batera uztea nuen pentsatuta, baina etxera itzulita, ezinezkoa egin zait hori onartzea. Ohitura eta errutina jakin batzuk urte luzez barneratu dituzunean, bat-batean dena aldatzea oso gogorra da. Hortaz, berriz ere entrenatzen hasi naiz, eta itxura osoa du denboraldi honetan ere jokatuko dudala. Jokalari asko irten da, eta gazte asko iritsi, eta laguntzeko intentzioarekin jarraituko dut.

**Afizioari agur esango diozu, baina ofizioa hor duzu. Hutsunea ez da erabatekoa izango.**

Denbora asko eskaini diot errugbiari, baina kanpoko bizitzarekin jarraituz. Ez dut dena albo batera utzi. Baditut taldekideak selekzioan soilik errugbian aritu direnak, eta orain, etxera iritsita, ez dute deus. Eta hori oso gogorra da. 30 urte dituzu, eta lanik gabe edo ikasketak bukatu gabe zaude. Eta, batez ere, inongo proiekturik gabe. Nik, behintzat, nire lana daukat, eta bikotekidearekin bizi naiz. Bizitza nahiko eraikita daukat. Halere, nire bizimodu guztiz aldatuko da. Datorrena ona izango da, baina mingarria da pasioz bizi izan duzu hori atzean uztea. Prozesu bat da, eta barne lanketa eskatzen du. Kirolean zabiltzala sekulako garrantzia du buruak, baina gerokoa ere prestatu egin behar da, kontziente izanez hau bukatu egingo dela momenturen batean. ●

## HIZKUNTZA ESKUBIDE URRAKETAK

# Udaltzainek zergatik ez digute euskaraz egiten?

Ez da gauza berria udaltzainek euskaldunen hizkuntza eskubideak ez errespetatzea. Dena den, azken hilabeteotan, eta batik bat udalerrri euskaldunetan, herritarrek haserrea erakutsi dute ordezkapenak egiten ari diren langileek euskara ez jakiteaz gain, jarrera oldarkorra erakutsi dutelako. Zer ari da gertatzen? Galderari erantzuteko udalen eskumenaz, Euskararen Legeaz, Polizia Legeaz eta polizia ereduaz aritu gara.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  LEIOAKO UDALA

**O**rain dela ez asko CCOO sindikatuak helegitea jarri dio Eusko Jaurlaritzari, behin-behineko udaltzainen lan poltsa bateratuaren hautaketa irizpideetan euskararen B2 mailaren ezagutza exijitu delako. Neurri batean harriztekoa da sindikatuak helegitea jarri izana, aurrez antzeko beste bi deialdi eginak zirelako eta CCOOk ez zuen auzitegiatara jo, ezta beste inork ere. Azken hiru deialdietan B2 maila eskatu diete udaltzain izan nahi duten guztiei, eta hala ere, udalerriek ez dute lortzen haien eskaria asetzea; lan poltsa hustu egiten da urteko sasoi batzuetan eta ondorioz udaltzain faltan gelditzen dira eta hartzen dituztenek beti ez dute udalerrriak eskatutako hizkuntza eskakizuna betetzen. Adibide bat jartzearen, udan kostako herriek udaltzain gehiago eskatzen dituzte eta ez dituzte beti lortzen euskaraz aritzeko gai diren langileak. Beste modu batez esanda, B2 hizkuntza eskakizuna duten udaltzainen eskaria handiagoa da eskaintza baino.

Bestalde, ELAko Ekaitz Oiangurenekin eta LABeko Jon Ander Altuberekin solastu dugu CCOOren helegiteaz, eta ez bata eta ez besteak ez dute partekatzen CCOOren erabakia. Udalak ez daude lan poltsa horretara jotzera derrigortuta. Udal bakoitzak bere lan poltsa edukitze-ko eskumena du.

Oiangurenek eta Altubek ez dute uste CCOOren helegiteak ibilbide luzea izango duenik. Dena den, ez dute indar gehiegirik jarri nahi sindikatuaren jarreran, azpimarratu nahi duten ideia zera da: herritarren hizkuntza eskubideak ez dira bermatzen, euskaraz jakingo duten langile publikoak ez direlako bermatzen eta batzuek eta besteek –izan sindikatu, auzitegi edo erabaki politiko– zirikituak baliatzen dituzte euskararen normalizazioan atzerapausoak emateko.

## NOLA EZ UTZI IHESBIDERIK

Afera politikoa dela azpimarratu dute bi sindikatuetakordezkariek. Baieztapen horretatik harago, zergatik ez daude bermatuta udaltzain euskaldunak EAEko udalerrietan? Legeak zein zirikitu uzten ditu eta nola itxi daitezke ihesbideok?

Solaskideek azaldu digute panorama legala, lege soil batetik harago amaraun ez hain sinplea deskribatu digute.

Batetik, udaltzainak ezereen gainera udal langileak dira eta udalek dute haien gainera eskumena. Udalak lanpostu bakoitzak zein eskakizun izango duen zehaztu dezake, hizkuntza barne. Udalak esango du halako udaltzain postutarako B2 behar den, edo C1, edo batere ez. Tokiko erakunde publikoak eskumena

duela esan dugu, baina bi sindikalistek argitu digute Euskararen Legeak baldintzatzen dituela udaletako lanpostuen hizkuntza eskakizunak. Proporzio kalkulatu bat egiten da eta udalerriko euskaldun kopuruaren arabera kalkulatzen da hizkuntza eskakizuna izan behar duen lanpostu kopurua, udaltzainak barne. Alegia, udalerraren egoera soziolinguistikoaren arabera dago diran lanpostuetako hizkuntza eskakizunak. Beste modu batez esanda, euskara ezagutza urriko udalerrri batean udaltzain guztiei B2 eskakizuna ezartzea legea urratzea litzateke, eta alderantziz, udalerriko euskara ezagutzaren proporzioa errespetatu ez eta udaltzain euskaldunak ez izatea ere bai. Oiangurenen eta Altuberen ustez, Euskararen Legeak ez luke halako baldintzarik ezarri behar, eta udaltzain guztiek gutxienez B2 hizkuntza eskakizuna izan beharko lukete. "Bestela, –dio Oiangurenek–, herri txiki euskaldunetan hizkuntza eskubideak errespetatzeaz hitz egiten da eta onartzen da Bilbon edo Gasteizen udaltzainarekin gaztelaniaz egin beharko dugula".

Hizkuntzaren hariari tiraka gogoeta sakonagoa egin dute bi sindikalistek. Udaltzaingoaren ereduaz eztabaidatze-ko beharra plazaratu dute. Bai ELAk eta bai LABek gertuko den, herria ezagu-



## Uema-ren eskakizuna: C1

Udalerrri euskaldunetara heltzen diren udaltzain berri askok B2 maila dutela dio Uemak eta perfil horrek herritarrekin euskaraz aritzeko gaitasuna ez duela bermatzen uste du. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak dio, batzuetan euskara ulertzeko gaitasunik ere ez dutela izaten eta gaineratu du euskararen aurkako jarreraren dutenak ere heldu direla udalerrri euskaldunetara. Iraitz Lazkano Uemako lehendakariak egoera horren ondorioa zehaztu du: "Euskaldunak beti izango gara bigarren mailako herritarrak". Uemaren eskaria da herritarrekin harremana duten udalerrri euskaldunetako langile guztiak C1 maila izatea, baita udaltzainek ere.

tuko duen eta herritarren zerbitzura egongo den udaltzain ereduaren alde egin nahi dute. Behin-behineko lanpostuetarako deialdiak jarri dituzte adibide: Balmasedako herritarra Tolosako udaltzain izan daiteke, herria ezagutu ere egin gabe. Euskara, bultzatu nahi duten ereduaren ardatzetako bat da: "Eredu komunitarioa bultzatu nahi badugu oso txarto hasi gara herritarraren eta udaltzainaren artean euskara ezin bada erabili", dio Altubek. Oiangurenak udalen eskumenean egin nahi izan du azpimarra: "Gure udaltzaingoetan euskararen ezagutza bermatu nahi badugu, udalek badaukate erreminta; behin

behinekotasuna bukatu, EPE bateratuak alde batera utzi eta euskararen ezagutza bermatuko duten oposaketa propioak egin ditzatela".

Udalen eskumena eta Euskararen Legea aipatu ditugu. Oiangurenak eta Altubek Polizia Legea ere hizpide izan dute. Lege horrek barnebiltzen ditu ertzainak eta udaltzainak. Hala, ez du jasotzen inolako euskara eskakizunik. Legeak dio, esate baterako, udaltzaina izateko batxilergoa edukitzea derrigorra dela, baita 38 urte baino gehiago ezin direla izan ere. Beharkizun horietan, lege orokorrak, B2 hizkuntza eskakizuna zerrendatzea eskatzen dute bi sindikatuek eta

hortik aurrera udal bakoitzak azter dezala goragoko eskakizunik behar duen.

Blindaje legalik ez dagoen neurrian, artikulua hasieran esan dugun moduan, sindikatu batek, auzitegiek edo erabaki politikoek zirrikituak aurkituko dituzte udaltzainek orain baino hizkuntza eskakizun murriztagoak izan ditzaten, eta ondorioz, herritarren hizkuntza eskubideak zintzilik geratuko dira.


Gure bi solaskideek ez dute uste CCOOren helegiteak aurrera egingo duenik, baina batek daki, botere juridikoak oldarraldian dira azkenaldian eta euskararen normalizazioan aurrera bezala atzera egin dezakegu. ●



Elorrioko udala

# Euskara

*gehiago, gehiagogaz, gehiagotan*



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

## Khutulunek ez zuen ezkondu nahi

**M**ongolen Inperioa, XIII. mendearen bigarren erdia. Gengis Khanek sortutako inperioa lau zatitan banatuta zegoen, eta lau khanerrietatik bi gerran egon ziren 30 urtez: Kublai Khan buru zuen Khan Handiaren Inperioa -Txina konkistatu berria barne hartzen zuena- eta Kaiduren menpe zegoen Txagatai khanerria.

Kaiduren armadaren buruzagi nagusia Khutulun (1260-1306) zen, soldadu ausarta, estratega bikaina eta Kaiduren 15 seme-alaben artean, alaba bakarra. Marko Polok horrela deskribatu zuen Khutulun: "Oso ederra zen, baina baita

indartsua eta ausarta ere, eta aitaren erresuma osoan ez zegoen gizonekorik indarrean eta balentrietan gailenduko zitzaionik". Mongoliar guztiak bezala, gizon nahiz emakume, zaldizko bikaina zen; arkuarekin ere oso trebea zen, baina horretan ere ez zen emakume bakarra, Gengis Khan birraitonak emakume guztiak arkuarekin trebatzeko agindua indarrean jarri baitzuen bere agintaldian.

Baina genero berdintasuna horretara mugatzen zen, eta Khutulun gaztetatik bultzatu zuten ezkontzera. Khutulunek ez zuen ezkondu nahi eta baldintza zorrotza jarri zuen amore emateko: *bökh*

izeneko mongoliar borroka tradizionalen irabazten zion gizonarekin ezkonduko zen. Hautagaiek 100 zaldi eman behar zizkieten khanaren alabari borrokan galduz gero eta kondairak dio 10.000 zaldi lortu zituela.

Azkenean, Khutulun Ghaza Khan izeneko gizon batekin ezkondu zen, komeñentziatz, etsaiek bere sexualitateari, generoari edo aitarekin omen zeukan intzestuzko harremanari buruz zabalduko zurrumurruek isilarazteko. Aita hil zenean, emakumea izanik, ez zuen haren tokia hartzeko aukerarik izan, eta anaietako baten alde egin zuen boterea eskuratzeko gatazkak piztu zirenean. 46 urterekin hil zen, edo hil zuten, haren heriotzaren kausak ez baitira sekula argitu.

Europar, Turandot pertsonaiaren inspirazio iturri izan zen Khutulun, eta bereziki Pucciniren izen bereko operaren bidez egin zen ezagun. Mendebaldean, horrenbestez, irakaspen argia dauka Khutulunen edo Turandoten istorioak: emakume indartsuak botereari uko egingen dio gizon baten maitasunagatik.

Mongolian ere oraindik badu eragina Khutulunek; zehazki, gaur egun *bökh* borrokaldietan erabiltzen den janzkeran. Borrokalariak bularra agerian dutela aritzen dira, Khutulun hildakoen artean itzuli ez dela ziurtatzeko. Alegia, *bökh* lehiaketetan emakumeek parte hartzea eta Khutulunek bezala gizonetakoak mende hartzeko aukera saihes-ten dute. ●

Khutulun  
(eskuinean)  
'Marco Polo'  
telesailaren  
arabera.



NETFLIX

## Nafarroako memoria guneak

Duela hiru urte memoria historikoari buruzko 29/2018 Foru Legea onartu zenetik, 1936ko gerrari lotutako 17 gune izendatu ditu Nafarroako Memoria Institutuak. Eta berriki [espaciosdememoria.com/eu/](https://espaciosdememoria.com/eu/) plataforman 17 guneren fitxak eta zenbait ibilbide jarri dituzte herritarren eskura. Datozen hilabeteotan fitxa eta ibilbide gehiago gehituko dituzte, beti ere egitasmoaren helburua kontuan hartuta: hezkuntza zentroei, memoria-aren aldeko elkartei eta, oro har, herritar guztiei memoria kritikoa lantzeko tresnak eskaintzea. ●

ren eskura. Datozen hilabeteotan fitxa eta ibilbide gehiago gehituko dituzte, beti ere egitasmoaren helburua kontuan hartuta: hezkuntza zentroei, memoria-aren aldeko elkartei eta, oro har, herritar guztiei memoria kritikoa lantzeko tresnak eskaintzea. ●



NAFARROAKO MEMORIA INSTITUTUA



# Babestu kazetaritza independentea

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**H**orixe da aurtengo harpidetza edo komunitate kanpainaren leloa. ARGIAren hizkuntzan ez da gauza berria eslogana. Baina zerbaitek ondo borobiltzen duenean esan nahi dena, zertarako beste baten bila hasi?

Harpidetza eredu aldatu zenean finkatutako oinarri berak mantentzen dira. ARGIAk, bere informazioa jaso nahi duen ororentzat, irisgarria izan nahi du edukiak ahalik eta gehien zabaltzeko. Beraz, produktua jasotzeko prezioa enpresak jartzearen sistemari buelta eman eta eredu irekiagoa abiatu zuten: "Bakoitzak zer hartu nahi duen aukeratu eta zer ekarpen egiteko prest dagoen esan". Hala bermatu nahi izan dute arazo ekonomikoak dirrela medio, ARGIA jasoko lukeen inor kanpoan ez geratzea. Hala aldatu dute harpidearen figura bera ere, gehiago hitz egiten baita ARGIA proiektua babesten duten komunitateaz.

Babestu kazetaritza independentea. Babes horrek ahalbidetzen duelako

eduki kritikoak sortzea. Babes horrek errazten duelako ARGIAk euskaraz lan egin dezan eta informazio guztia gure hizkuntzan ematen. Babes horregatik izan gaitezke zorrotzak: banketxe, multinazional edo alderdi politikoen gidaritzapean ez egoteagatik. Babesa duenak ere, desberdin egin dezake. Horri esker hasi gara ARGIA herriz herri eta auzoz auzo bizikletaz banatzen, edo kendu ditugu webgunetik multinazionalak gure datuekin negozioa egiteko zeuzkaten tresnak. Jendeak proiektu hau babesten duelako eskaini ditzakegu eduki guztiak doan eta *Creative Commons* lizentzia librepean, euskarazko multimedia biltegi osatuena barne. Jendearen babesari esker langileok eta kolaboratzaileok lan baldintza duinetan lanean jarrai dezakegu, Jaurlearitzak hedabide bakan batzuk diruz babestu eta beste asko baztertzeko dituen bitartean.

## ZER EMAN ETA ZER JASO?

ARGIAkoa egin nahi duenarentzat bidea ahalik eta errazten jartzeko argia.eus webgunean aldatuta batzuk egin dira. "Egin ARGIAkoa" orria eraldatu dugu, kidezta ereduaren oinarriak eta baloreak argiago eta gardenago azalduz. Bi galdera oso sinpleri erantzun behar dio kide berriak. Lehenik, ARGIAN egiten dugun euskarrietatik, zer jaso nahi duzu etxean edo emaitan? Eta bigarrenik, zer diru ekarpen egiteko prest zaude ARGIA babesteko? Hartu nahi duzuna eta egoki iruditzen zaizuna eman. ●

## Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Eusko Jaurlearitzaren diru laguntzen banaketa bidegabeagatik"

Amorebietako Iraia

"Ikusita laguntza ekonomiko publikotik herri proiektu eta zerbitzu hau baztertuta dagoela, nire laguntza txikia eskaini nahi dut"

Bilboko Xabier

"Euskal Herriko hedabide hurbil eta 'txikiak', erakundeen aldetik jasotzen duten arreta eta bultzada eskasa ikustearekin, aspertuta nagoelako"

Markina-Xemeingo Rosa



## Txori urdinak

Zigor Olabarria Oleaga ARGIAko kazetariak azaroaren 27an aurkeztu du Txori urdinak. Espetxearen erreturatu bat Santi Cobos presoaren ahotik liburua Gasteizen, Hala Bedi irratiairen lokalean. Alboan izan ditu Cobosen arreba Silvia eta Mixel Sarasketa preso ohia. 80 bat lagun elkartu dira aurkezpenean eta Hala Bedi kuzenean emititu duenez, Zaballako espetxean dauden presoek, Santik tartean, saioa entzun ahal izan dute.



# TXOKOLATEZKO FRUTA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**H**otzak maite ditu frutak. Landareak ez dira tuntunak. Hotzaren gustuaren berri badute, eta frutak oparitzen dizkiote. Hotzarekin, janari eskasiarekin animalia askorentzako gutuzia gorenak dira, turroiaren aldean apartak. Hori gutxi balitz bezala, hotzak berak frutak gozatu egiten ditu, samurtu, bigundu eta umotu. Animaliek jango dituzte, eta gero haien haziak han eta harago hedatu.

Badira ondo umotu arte jan ezin diren frutak. Maurice Harriet haltsuarrak (1814-1904) bere hiztegi erraldoian idatzi zuen: "Mizpirak ez dira on iateko onthu purikatu ditezten artean". Mizpira (*Mespilus germanica*), animalioek badakigu, gordin-berdetan jangarri da, baina purikatu ondoren alde ederrean kitzikatzen du ahosabaia. Beste fruta batzuek, heldu gabe janez gero, ahoa edota mokoa dantzan jartzen dute, edota estomagoa minberatu eta erre... Kakia (*Diospyros kaki*) da horietako bat.

Kakia udazkenean biluzten da, hotz pittin bat sentitu orduko, eta laranja kolore biziko fruta handi, borobil, distiratsuak erakusten ditu. Ordura arte gordeta izan ditu. Hosto berdeen azpian frutak ere berde, ezin hauteman ziren. Hotzak gona kendu dionean jabetu da frutak bistara atera behar dituela, ondu, kolore deigarritz jantzi eta animalioi eskaini. Kakia, erabat heldua izan ezean, ez da fruta gozoa. Ahoa idortu egiten du. Ondo



Zapote beltza (*Diospyros nigra*). Kakiaren genero berekoa da, baina heldutakoan mamia txokolate kolorekoa du, eta zaporea ere harena omen. Argazkia: jardineriaon.com.

purikatzen utzi behar zaio; gogorra baino belaka aldera gustagarriago izaten du zaileak. Japoniarrek esaten diote "kaki", eta hortik bere izenaren osagai hori; *Diospyros*, berriz, grekotik dator, eta Zeusen edo jainkoaren fruta esan nahi du.

Ni ez naiz kakizalea. Estetikoki gustatzen zait. Oraintxe edozein bazter edertzen du, arbola puska adar soiletan fruta ale handi deigarri horiekin. Ahoan beste upeleko sagardoa da. Baina duela gutxi hitz egin didate bere bestengusu batetaz: txokolate dasta duen kakia. Hori bai, hori gustatuko zaidala antzematen diot. Erdialdeko Amerikan Mexikotik Ekuadorrerainokoa da, eta "zapote beltza" esaten diote, *Diospyros nigra*. Orain

munduko toki tropikal ugaritan lantzen da. Kakiaren genero berekoa da, baina heldutakoan mamia txokolate kolorekoa du, eta zaporea ere harena omen. Fruta heldua ez badago, zakarra eta mingotsa da, erregarria; Filipinetan arraina pozoi-tu eta harrapatzeko erabiltzen dute. Guk txokolatea bezala jaten dute: gordinik eta pastel, tarta, izozki, budin eta antzeko gozoetan. Txokolateak bezala, osasunerako mesede ugari omen dakartza: loezina eta azaleko eta arnaseko arazoak oneraten ditu. Era berean bista hobetzen du eta heste aringarria da. Onena, gorputza pizten du. Hurrengo neguan txokolatezko frutak izateko eta piztu eta bizi-bizi ibiltzeko oraintxe agindu dut arbola bat. ●



HEMEN DAGO  
NAFARROA



## SAFRAN LILIA

# “AZAFRAIA EKOIZTEKO EURI GEHITXO EGITEN DU GUREAN, BAINA MEREZI DU ESFORTZUAK”



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**P**agolako (Zuberoa) Sahalbüria base-rrira 2003an iritsi zen Xexili Thoreau, eta baratzea eta lehendik etxaldean zeuden fruta arbolak lantzen eta zaintzen hasi zen orduan: mertxika, gerrezia, pikua, intxaurrria, udarea... 2014ko uztailean, berriz, lursaileko 300 metro koadroko zatitxoan azafraiak landatu zituen, eta geroztik, urtero, urri inguruan, 15.000 lilietatik 100 bat gramo azafrai ateratzen du. Eskuz egiten du lan zorrotz guztia, eta ondoren, freskoan, idortua, erreximentetan nahiz zukuetan saltzen du. Hurbileko merkatuetan topatuko dute Thoreau, Donapaleukoan, Maule-Lextarrekoan eta Bastidakoan, esaterako. Nekazarien hainbat mugimendu eta elkartetan ere hartzen du parte.

## Pagolara iritsi aurretik, bazuen harremanik nekazaritzarekin?

Ez, esparru espezializatuko kirol irakaslea nintzen, baina irakaskuntzan ere ez nuen gehiegi jardun. Kultur munduan mugitu naiz gehiago, gitarjolea eta abeslaria nintzen. Ez dut nekazaritzako inolako formaziorik, Pirineo Garaietako Edourd Roux azafraigileak erakutsi zidan jarduera honen inguruko guztia.

Hari erosten dizkiot erraboiak eta hark gidatu nau fruta arbolagintzan ere.

## Nolatan bururatu zitzaizun azafraia ekoizten hasia?

Etxalde inguruan lur gutxi nuelako. Landare horrek ez du lur zati handirik behar; produktu gourmet ezohikoa da, sukaldaritzan balio handia duena. Frantziako estatuan azken hamar urteetan bultzada handia izan du azafrai ekoizpenak, baina hau ez da ezer berria. Egia esan, 1920an 2020an baino askoz azafrai gehiago ekoizten zen estatuan!

## Inguru aproposa al da gurea?

Ipar Euskal Herriko klima ez da egokia azafraia egiteko, ez... euri gehiegi egiten du! Ez da erraza inguru hauetan ekoizpena aurrera eramatea, baina tira, esfortzuak merezi du, ur kantitate handiak urtero ekoizten dudana azafraiarik kalitate handia ematen diolako. Hori diote nire bezero askok, eta analisisetan ere emaitza ona eman du espeziak.

## Azafraia eta ekoizten dituzun fruituak etxean bertan eraldatzen dituzu?

Bai, eraldaketa guztiak nire sukaldean egiten ditut. Azukre beltza eta limoiak erosten ditut, ez beste ezer, eta fruituen ezer galdu gabe eraldatzeko moduan egiten dut lan. Freskoan ez bada, marmeladan, fruitu-pastetan, idortuta edo siropeetan saltzen dut.



## Zergatik hautatu zenuen ekoizpen eredu ekologikoa?

Ez dakit beste modu batean egiten. Alde batetik, nire landare eta zuhaitzek lurretik hartzen dute indarra, eta beraz, hori kutsatzea ekidin nahi dut. Gainera, polinizatzaileen beharra ere badut. Logikoa iruditzen zait modu hau, eta merkeagoa. Bestetik, ez dut uzta zehatzik aurreikusiten: tipulak ateratzen badira, azafraidun tipula-konfita egingen dut. Ez bada tipularik ateratzen, bada, azafraidun pikukonfita egingen dut orduan. Jaso dudana kontzentratzen naiz jaso izan nezakeen horretan baino, dagoenera egokitzen naiz. Askoz sinpleagoa eta dibertigarriagoa da horrela. ●



943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

## Sentitu magia

Zatuz gure Gabonetako erakusketa handia ikustera eta gozatu etxea zure era apaintzen.

[Online denda](#)





# AZPI-KO ATEA ZABALIK

Donostiako Mundaiz kaleko 14. zenbakiko eraikin zaharrak Azpilikueta upategiko biltegi gisa funtzionatu zuen hainbat hamarkadaz. Tokia ezin hobea zen: Atotxako tren geltokitik gertu eta Egia auzoko behe aldean kokatuta, tailer txikiz eta orotariko gauzak konpontzen zituzten garaje osatutako kale ospelean zegoen. Urte dezente beranduago, hainbat tokitatik Donostiara heldutako artistek espazioa hondatuta, pipiak janda eta hezetasunez blai aurkitu zuten; hala eta guztiz ere, aukerak ikusi zizkioten lekuari eta hura atontzen hasi ziren. Eta bai lortu ere. 2016ko abuztuan ireki zuten Azpi Kultur Elkartea, lanerako eta ekintza kulturalak bultzatzeko espazio autogestionatua.

 JONE ALAITZ URIARTE  
 AZPI KULTUR ELKARTEA

**E**z da erraza, ezta ohikoena ere, Donostia bezalako hiri txit dotore eta aberaskume batean Mundaiz kaleak egun gordetzen duen izaera industrialeko zonalderik aurkitzea. Are gutxiago, zonalde hori Tabakaleratik zein autobus eta tren geltokitik gertu eta Gladys Enea parkearen albo batean kokatzen bada. Horregatik, esan liteke bertako espazioak –Dabadaba aretoa barne– hauskortasun puntu batean daudela, erresistentzia egiten sasi oparotasun baten mesedetan higiezin eremuan egiten diren esku-hartzeen aurka borrokan. Bidegurutze horretatik ari da lanean orain bost urtetatik AZPI Kultur Elkartea, besteak beste arkitekto, diseinatzaile, zinemagile, ilustratzaile eta artista batzuek kudeatzen duten espazioa. Egun hamabost bazkidek ematen diote forma eta berotasuna Egia auzoan dagoen bi solairuko sormen espazioari.

AZPIko bigarren solairuan, egurrezko mahai laukiluze handi baten bueltan eta ordenagailu pantaila handien atzean aritzen dira lanean AZPIko kideak. Hala ikusten ditut ostegunero, bertara gerturatzen

naizenean asteroko barazki otarra jasotzera: batzuk plano, altxaera eta *render*-etan fin-fin lanean, beste batzuk diseinatu berri duten kartelari azken ukituak ematen, eta hondokoak estreinatzeaz dituzten filmeetan lanean. Espazio argitsua eta eroso da, eta barruan epeletan baldin badaude, sarri piztuta izaten duten berogailuari esker da. Egurrezko apalak materialez beteta daude, eta antzinako biltegi-pasilloan aurrera eginez gero, metakrilato puskek, pintura kaxak, arotzeria lantzeko beharrezko tresneria eta Andoni Beristain argazkilariaren estudioko *set*-arekin egingo dugu topo. Beheko solairua erakusketa eta emanaldietarako espazio gisa erabiltzen dute, eta marko urdindun leihate handiak kanpoaldearekin lotzen du AZPI.

Bere sorreran, AZPI lanerako espazio gisa sortu zen, *coworking* modura; alegia, norberaren lan pertsonala garatzeko lantokia. Gutxinaka, ordea, egunero lanerako espazioa elkarbanatzen zuten horien artean bestelako egitasmoak eta proiektuak bultzatu eta sortzeko grina piztu zen: elkarrekin lan egiteko

desira zuten eta beren diziplinarteko praktikaketatik abiatuta proiektu interesgarriak egin zitzaizkela uste zuten. Bestalde, nabari zuten hirian gabezia bat zegoela arte-erakundeetatik harago sortzaileen lanak erakutsi eta beste dinamika batzuk sorrarazteko. Horrez gain, auzoan eta auzokideekin bestelako harremanak eraikitzeke gogoia ere bazuten. Horri guztiari erantzuteko, AZPIk ateak zabaldu zituen ekimen ezberdinak bere gain hartzeko, hala nola, liburuaren aurkezpenak, proiektzioak, grabaketak, pop-up ekimenak eta abar. Egun ere, jarraitzen dute orotariko ekimenak antolatzen, azkena Aritz Galarragaren *Gogoan dut* liburuaren aurkezpena.

Ekintza horiek antolatu eta beraien programa propioa egonkortzeko desiratik ATEA erakusketa-programa jarri dute martxan 2019az geroztik: urtean lautan antolatzen dituzten aurkezpenak dira, astebeteko iraupena izaten dutenak. Programaren helburua da arte garaikideari presentzia ematea espazio ez instituzionaletan, eta Donostiako aktibitate artistikoa aktibatzea hiriko paisaia kulturala birpentsatuz. Eusko Jaurlaritzako Eremuak proiektuaren babesarekin, jada sei erakusketa antolatu dituzte azpitarrak. Edizio bakoitzak bere izaera propioa izaten du, eta sarri erakusketa bakoitzaren komisariotza nork egiten duen erabakigarria izaten da erakusketaren esparrua –zinema, arkitektura, ikusizko-arteak– edo izaera zein izango den jakiteko. Halaber, erakusketa bakoitzarekin argitalpen bat argitaratzen dute, artista parte-hartzaileen elkarrizketak edo hausnarketak biltzen dituena.

Gehienetan espazioan bertan aurkezten diren erakusketak badira ere, auzoan barrena hedatu diren edizioak ere antolatu dituzte. Horren adibidea da Atera izenburupean joan den martxoan



antolatu zuten fanzine, artista-liburu eta autoedizio azoka. Egiako komertzio eta tabernak, tatuaje denda eta supermerkatuak, hamasei espazio guztira, argitalpenez eta horien egileez blaitu zituzten. Erakusketa horretan 40 egile eta argitaletxe baino gehiagok hartu zuten parte. AZPIko espazioa bera liburu-denda bilakatu zen, jardunaldirako sortutako diseinuzko mahai eta altzarietan ehunka argitalpen jarri baitzituzten salgai. Auzoa eta sortzaileak harremantzeko topagune interesgarria izan zen, auzoko ohiko dinamikak era sortzailean eraldatu zituen ekimen kulturala.

2020ko azaro hasieran, *Nueve modos de sentarse* (Esertzeko bederatzi modu) izenburupean, objektuen diseinuari erreparatu eta Gipuzkoako hiriburuko bederatzi diseinatzaile, arkitekto eta artista gonbidatu zituzten norberak bere taburetea diseinatu eta eraiki



zezan. Erakusketa horretan astebetetz bederatzi aulkik okupatu zuten AZPIko erakusketa-espazioa. Material askotariko egindakoak ziren: burdinezkoak, egurrezkoak, zoladurazkoak eta forma sinpleenetatik konplexueneraino irudimenezko igarobidea ahalbidetzen zuten esertzeko altzariak. Proiektu horrekin euskal testuinguruan altzarien diseinurako dagoen interes eta aukera urritasuna mahaigaineratu zuten; agian kezka horretatik abiatuta eta gabezia horri heltzeko asmotan, erakusketan parte hartu zuten diseinatzaileetako batzuek Moduz kolektiboa sortu berri dute. Elkartearen helburua da euskal diseinatzaile gazteen topagune eta beraien lanen erakusleho izatea. Asmo horren bueltan, joan den urriaren 6an *Bloom* (Loratzea) erakusketa antolatu zuten Gladys Eneako parkean, eta berdegune horretako hainbat txokotan era askotako diseinuzko altzariekin instalazioa egin dute denboraldi baterako. Merezki du Gladys Eneako udazkeneko edertasunean galdu eta sastraken edo iturrien alboan diseinatzaile horien sor-kuntzak aurkitzea.

*I Want to Be With You Everywhere* (Zu(r)ekin nonahi egon nahi dut) izenburuarekin, urriaren 29an ireki zen Atea ekimenaren seigarren edizioa. Bertan, euskal testuinguruan lan egiten duten artisten lanak ikusi ahal izan dira, AZPItik pasa diren artisten lanekin batera, beste behin ere proposamen artistikoak zirkuitu alternatiboan ikusgarri egin daitezkeela erakutsiz. ●



EMAKUME IDAZLEAK XX. MENDEKO ITALIAN

# FRANCA RAME: UMOREA, MEMORIA EGITEKO

Franca Rame italiarra (Parabiago, 1929 - Milan, 2013) antzezle, umoregile, idazle, zuzentzaile, aktibista sozial, pertsonaia politiko eta irudi publikoa izan zen. Bere biziaren eta obraren nondik norakoen errebasoa egin du.

 AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

**F**amilia ibiltari bateko kide zen Franca Rame. Familia eta arbasoak tradizioz antzerkigileak izan ziren, eta XVII. mendetik aritu ziren *commedia dell'arte* delakoan lanean. Antzerki mota herrikoia da, eta horregatik dialektotan oso aberatsa. Trama errazak interpretatzen dira, txotxongiloak eta aratusteetako jantziak nahasiz. Umorean eta inprobisazioan oinarritzen da, baina akrobaziak ere erabili ohi ziren.

Zinemaren agerpenak txotxongiloen erabilera kolokan jarri zuen XX. mende hasieran, eta garai berrietara egokitzeke pertsonen antzezlanari lekua egin zion Rameren familiak. Francaren aita, Domenico Rame, espektakulua saltzeaz arduratzen zen, zihoazen lekuko istorioak biltzeaz edota publikoa gustura egonez gero ikuskizuna luzatzeaz. Francaren ama, Emilia Baldini, konpainiako administratzailea zen, eta horretaz gain, josten ere ikasi zuen. Arropak konponetzen zituen eta eszenografia prestatzen aritzen zen. Hori gutxi balitz, konpainiako puntako aktorea izan zen; 30 urte geroago Franca izango zen bezala. Jaiotza zortzi egunetara egin zuen bere lehen patera Ramek, eta ordutik aurrera bere adinera egokitutako pertsonaiak antzeztu zituen. Neba-arreben artean gazteena zen eta beraiengandik ikasi zuen agertokian mugitzen.

Alemaniarrek Italia okupatu izanak asko zaildu zuen antzerkigile ibiltarien bizimodua, eta ondorioz, Ramek erizaintzara bideratu zuen jarduna. Erizain gisa aritzeko bi hilabeteko praktikak egin ostean kanporatu zuten, lan horretarako balio ez zuela argudiatuz. Hala, berriz

ere antzerkigintzaren mundura salto egin zuen, eta *casting* batera aurkeztu ostean Dario Forekin batera lanean aritzeko hartu zuten. 1952an elkarrekin ezkondu ziren, eta bizi proiektu bat eraiki zuten. Fo-Rame konpainia sortuz bizitza pertsonala eta profesionala partekatu zituzten eta mundu guztian aritu ziren lanean. Gutxi dakigu, ordea, Fok Rame-rengandik zenbat ikasi zuen. Seguruenik zaila da neurtzen, baina bien aitorenak irakurrita Foren izena zeramatena testuetako asko bien artean egin zituztela ondorioztatu dezakegu. Ramek testuak zuzendu, moztu eta aldatu egiten zituen hobeto funtziona zezaten, eta testuetako batzuk Ramek bakarrik idatzitakoak dira seguruenik.

1968 inguruan antzerki soziala eta politikoa indarra hartuz joan zen. Aurreko konpainia desegin eta Nuova Scena kolektiboarekin parametro erradikalagoetan mugitzen hasi zen bikotea. Langileek okupatutako fabrika bati sostengua eman zion Rame eta Fo parte ziren La Comune antzerki taldeak, Soccorso Rosso antolakundearen bitartez. Langile preso politikoei laguntza ekonomikoa, asistentzia juridikoa eta beraien eskubideen inguruko informazioa emateaz arduratzen zen erakunde hori.

Haien obretan ere islatzen da konpromiso politiko eta soziala. *Tutta casa, letto e chiesa, e altri* (Etxe guztia, ohea eta eliza, eta beste) zortzi bakarriketaz osatuta dago. 1977an argitaratu zen eta hitzaurrean lana marko feministan kokatu zuen Ramek. Garaian pil-pilean zeuden gaiak barnebiltzen ditu: emakumeak lan-munduan, mugimendu so-

zialak, amatasuna, sexualitatea, eliza- ren presio morala... Lan horretatik testu bat azpimarratu nahi nuke: *Lo Stupro* (Bortxaketa). Hainbat gizonek emakume bati egindako bortxaketa eta ondorengo bahiketa eta biolentzia modu gordinean kontatzen ditu. Angustia eta beldur tonuan idatzita dago, oso era sinesgarrian. *Quotidiano Donna* aldizkarian irakurritako testu bat fikziora eramana zela adierazi zuen urte luzez Ramek. 1987ra arte gorde zuen bere egia: bortxaketaren bidez, faxista talde batek bere aktibismo politikoa zigortu nahi izan zuen eta bakarriketa autobiografikoa zen testu hori. Mugimendu feministak sostengatuta bizipen horren irakurketa politikoa egin zuen autoreak aurrerago.

Josune Muñoz Skolastikako zuzendariak urteak daramatza autobiografia modu sistematikoan eta bortxaketaren kulturaren baitan aztertzen; emakumeen autobiografien boom-a bizitzen ari garela dio berak. Tarana Burkek 2006an abiatu zuen *#metoo* kanpainaren uzta beharrezkoa jasotzen, hain zuzen ere. Ramek, beste askok bezala, ez tandari aurrea hartu zion eta inpaktu handiko lan ausarta egin zuen.

1983an *Coppia aperta* (Bikote irekia) antzezlana argitaratu zuten Ramek eta Fok. Gaia topikoa izan daiteke: senar-emazteak, beraien harremanaz aspertuta, bikote harreman irekiago bat planteatu eta eztabaidan ari dira taula-gainean. Gaia serioa da oso. Baina testua umore, ironia, egoera absurdo eta esajerazioz beteta egonik, modu arin eta dibertigarrian planteatzen ditu hainbat hausnarketa sakon. Interesgarria da ahoz gora irakur-



Franca Rame Dario  
Fo senarrarekin,  
testu bat irakurtzen.

tzea norberak tonuak aldatuz edota laguna duzun pisukidearekin; zergatik ez? Pisukidea senarra edo emaztea baduzu ere interpreta dezakezue, agian elkarrizketaren bat aurrezteko asmoz.

Ez nuke aipatu gabe utzi nahi *Sesso? Lo zen o l'arte di scopare* (Zen edo larrua jotzearen artea). Rame, Fo eta beraien seme Jacobok sortu zuten lana: Adam eta Ebaren historiatic abiatzen dira eta lehengo sexu harremanen urduritasunaz, hilekoaren tabuaz, amek kontatzen (ez) dutenaz, abortu ilegalaren arriskuaz, gizonen segurtasun faltaz, zakila ez tentetzeaz, orgasmoaz, klitoriaz eta abar mintzo da. Kapitulu motzez osatuta egonik eta umoretik egina dagoenez arina da. Jende helduarentzat ez ezik, eskoletan modu pedagogikoan erabiltzeko asmoz

sortu zuten. Beste hainbestetan gertatu zitzaien bezala zentsuratu eta hezkuntza programetatik kanpo utzi zuten Italian.

Mugimendu feministaren gorakadarekin batera Ramek, ordura arte bere rola itzalpean mantendu zuenak, hitz egiteko era aldatu eta "gure antzerkia" terminoa erabili zuen testuotan bere presentzia eta lana azpimarratzeko.

Rame emakume ederra zen: ile- horia, eguzkitako betaurreko handiak zeramatzana eta hedabideetan jantzi deigarriekin eta irribarrearekin agertu ohi zena. Txolintzat deskribatu izan dute askotan. Foren itzalpean zegoen emakume apaina besterik ez da izan askoren begietara. Baina itxura horrek antzerkigile familia bateko kidea gordetzen zuen, emakume argi, interesgarri eta grinatsua. Italiar

kulturaren abangoardia izandako antzerkigilea. Garaiko mugimendu sozial eta politikoak bere baitara ekarri eta pauso bat aurrerago eraman zituen emakume indartsua. Bere buruaz barre egiten zuen pertsona. Eta besteei barrea eginaz bizitza goxatzeko gai zena, karismatikoa.

Pena da euskaraz ezin irakurtzea. Eta tristea gaztelaniazko argitalpenak zaharrak izatea. Ondo legoke testu horien argitalpen bat, gaur egungo sarrera eta begiradarekin irakurria. Autoreari bere lekua emango liokeena. Bitartean, italiara ulertu ez arren ere, merezi du Youtube-n sartu eta Franca Rameren izena teklea-tzea, garaiko antzokiak jendez lepo ikusi eta espontaneotasunari ikusleak nola barez erantzuten dion egiaztatzeko. ●

Alberto Ladron Arana  
**MENDEKUAREN HAZIA**

Joxean Agirre  
**DISTIRA ETA ALDERANTZIA**

Asel Luzarraga  
**MALTHUSEN EZINEGONA**

Maribel Aiertza  
**EZER EZ DA DIRUDIENA**

elkar [www.elkarargialetxea.eu](http://www.elkarargialetxea.eu)



LIBURUA

# Lurrikarek eraginda



EREIN

## EPIZENTROA NEREA LOIOLA PIKAZA

EREIN, 2021

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**E**pizentroa zazpi kontakizunez osatutako liburua da. Nerea Loiola Pikazak helduentzako egin duen lehengo lana da eta izenburu sugerentea aukeratu du estreinako lana argitaratzeko: *Epizentroa*.

Definizioz, lurrikarak edo mugimendu sismikoak gehien nabaritzen diren lurzoru zatia da epizentroa eta liburua- ren irakurketan etengabe pentsatu dut aproposa dela benetan epizentroarekin eskaintzen zaigun irudia. Izan ere, kontakizun guztietan lurrikara bat gertatzen da, zeinak pertsonaien ordura arteko bizitza eta egoera erabat aldatuko dituen. Esango nuke gai orokorra bera dela guztietan: gertakizunek eta erabakiek pertsonaien bizitzetan duten inpaktuaren adibideak dira denak. Inpaktuek bizitza “normala” kolokan nola jartzen duten erakusten digute, pertsonaien konplexutasun eta hipokresia agerian utziz.

Kontakizun guztiek elkarbanatzen dituzten elementu gehiago daude liburuan. Esaterako, aurkezten diren egoerek gauza txikiekin dute zerikusia, egunerokoan pertsonaiek dituzten pentsamendu, sentimendu eta esatekoekin. Sexuak eta desirak kontakizunen arteko hari gisa funtzionatzen dute. Hau da, pertsonaia gehienek gaiaren inguruko zalantzak, gezurrak, beldurrak eta plazerak erakusten dituzte. Botere harremanen preso dira eta sexua beraien bizitza den performancea erakusteko elementua. Pertsonaia batzuek, modu mesfidatian bada ere, terapia alternatiboak erabiltzen dituzte beraien gaitz eta zailtasunak gainditzeko. Literatura garaikidearen eta gaur egungo panoramaren erakusle direla esango nuke.

Istorio bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ere baditu eta pertsonaia bakoitzaren epizentroa desberdina da. *Itsaso*

*zuria*-n, amaren gaixotasunak eta etor daitekeen heriotzak eragiten du haurraren lurrikara. *Epizentroa* deitzen den kontakizunean lan aldaketa batek eragiten du pertsonaiekin bizitzetan mugimendu sismikoa eta agerian uzten du bikote harremanean dagoen paternalismoa.

Ipuin tradizioaletako egitura lineala jarraitzen dute kontakizunek. Hasierako egoera bat dago eta gero lurrikarak apurtzen du. Ipuin tradizioaletatik desberdina dutena zera da: istorioek bukaera argitu gabe uzten dute, irekiak dira. Irakurleak ipuinok osatu beharrean aurkituko du bere burua.

Patxadaz irakurtzeko liburua da – kontakizun bat gaur eta bestea hurrengo egunean, adibidez –, istorioek duten pisua eta mamia gozatu eta ulertu ahal izateko. Loiolaren hurrengo liburuen zain geratuko naiz ni, beste zerbait irakurtzen dudana bitartean. ●





MUSIKA

# Olatu guztien azpitik, sormen askearen gainetik



**EZIN EZER ESPERO**

**HUNTZA**

MAUKA

**IKER BARANDIARAN**

**O**spea kudeatzea ez da inorentzat erraza, are gutxiago gazte-gaztea izanda eta lehen diskoarekin gertatuz gero. Horixe bizi izan zuten oso modu natural eta espontaneoan unibertsitatean topo egin eta ondo pasatzeko asmoz kantuak idazten hasitako Huntza talde sortu berriko partaideek. Bat-batean lehen diskoko *Aldapan gora* kantuaren bideoak milioitik gora bisita jaso zituen eta inork aurreikusi ez zuen zurrumbilo erraldoian murgildu zituen.

Eutsi zioten olatuari, egin zituzten ehunka kontzertu eta elkarrizketa. Eta ia jarraian bigarren diskoa kaleratu zuten; hura ere jai-girokoa, freskoa eta bizitzeko gogoz zipriztindutakoa. Ikasketak eta musika, ospea eta egunerokoa, askotan

oso zaila den oreka lortu zuten hankak –aldapan– lurlean izan dituztelako beti.

Horren ostean heldu zen pandemia eta konfinamendua, eta baliatu dute jaisteko erritmoa, presioa alboratzeko, hausnarketa egiteko, arnasa hartzeko neurri batean, eta hirugarren diskoa – *Ezin ezer espero*– patxadaz pentsatzeko eta sortzeko. Beti joan izan dira korrontearen kontra, taupada propioak jarraituz, eta oraingoan ere hala egin dute jendeak espero duenari erreparatu beharrean barrura begiratuta.

Eta barruak eskatu diena sorpresa da hein handi batean: esaterako, diskoaren lehen kantua, *Odoletan*, rockeroa da, bestelako erritmo eta gorputza dauka, nahiz eta trikitia eta melodia di-

tuen lagun. *17:21* detailez jositako pop-a da, parte hartzen duen Julieta Venegas handiarentzat propio egin dirudien lo-kanta ederra. *Izan nahi dut*-ek, aldiz, Huntza-ren ohiko marka dauka zizelkatuta: trikitiak gidatutako pop-rock bizi eta alaia, nahiz eta badituen ñabardura berriak. *Haizeak*-ek, adibidez, erraztasunez lehiatu dezake folk epikoa egiten duten talde nabarmenekin. Doctor Prats-eko lagunek parte hartu dute abestian. *Poema nekatu bat* xuxurlari jaiotzen da, baina ia orkestral bilakatzen da. *Punta punte bi* rockaren eta trikitiaren arteko lehia da, gaur egungo hit!a. *Damutu asko* mestizoa da erabat, riff iluna eta kari-bear doinua batzen dituena. Azkenik, *Agur Itaka* pop eta folk balada da. ●



# Ahizpatasuna zutik zugatik, Saioa

AMETS ARANGUREN ARRIETA IDOIA ZABALETA / FOKU

Izabatic Iruñerako bidea egin du azken bi hilabeteotan pandemiak urtebete atzeratu duen Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Mendialdean hasi eta elur artean buka. Errepideetako elurrak askori txangoa izorratu badie ere, ia 2.000 lagunek bete dute Anaitasuna igande arratsalde. Batzuk manta eta guzti. Kalekoaz gain, haize freskoa nabari da ere oholntza gainean: gaztetasuna, berritasuna eta emakumezko bat presente, aspaldiko partez. Giroa bero dago publikoaren artean eta bertsolariak hasierako agurrak bota bezain pronto kokatu dugu finalista bakoitzaren fan kuadrilla non zegoen eserita.

Saio puntuagarritik at Josu Sanjurjoren bertsoak heldu zaizkit gehien. Hasierako agurrean, bizitzako hainbat esparrutan bidelagun duen bertsoari eskatu dio laguntza, orain Nafarroa osoaren aurrean kantatu behar duela. Gazteei zuzendurik bota du bukaerakoa, konfiantza jarritz haiengan. "Beraz sekula baldin bazauz ametsen baten liluran / inork egi-

ten ez duenean nik sinetsiko dut zuga".

Askotariko gaiei kantatu diete zortziek: mapetan ageri ez den herriari, lodifobiari, bikoteari, pisukideei, sexu-harremanei, pobrezari eta laguntza eske zebilen emakumezko bati, besteak beste. Azken horren inguruan Xabier Silveirak bota duenaren harira marmarrak entzun dira publikoaren aldetik. Umoreak ere izan du bere lekutxo gai batzuetan, baina hortik enfokaturiko bertsoaldiek ez dute bereziki gailurrik jo. Lana ongi eginik, baina atentzioa gehiegi eman gabe pasa dira ariketaz ariketa Eneko Lazkoz eta Julio Soto (edo, agian, nik ez diet kasu berezirik egin).

Ez dakit hotza zen, eseri garen lekua ala bertsoaldiak berak, baina bizi izan ditudan finaletan motelena izan da, monotonoena akaso.

Nabaria izan da arestian aipaturiko berritasuna, beste gauza batzuen artean, gazteongandik hurbil dauden erreferentziak atera direlako bertsoetan, Saioa

## NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN FINALA

NOIZ: azaroak 28

NON: Iruñeko Anaitasuna


Alkaizaren ahotik gehienbat. Nork esanen zigun Nafarroako Bertsolari Txapelketako final batean C. Tanganaren ize-na entzuten genuenik? Honen parean, boomer-aren papera hartzea besterik ez zaio geratu Eneko Fernandezi. Alkaiza kantuan entzuteak are gehiago nabarmendu du emakumezkoen ezean esan gabe geratzen den hori guztia.

Gaur arte protagonista izandakoek belaunaldi berri bat topatu dute haiekin oholntza konpartitzen. Sanjurjo bere jokorako abileziak, Illarregi anaiak haien kanturako gustu zein gazte perspektibarekin eta aurtengo txapelkun eztaba-daezina bere diskurtso landuaz.

Buruz burukoan egon da tentsio handiena. Esanen nuke publikoaren artean argiki somatu dela txantrearraren aldeko jarrera. Salto batez altxatu da Anaitasuna txapela bere burura zihoala entzuterakoan. Ongi baino hobeki merezitako txapela eta krak txiki bat azken urteetako ibilbidean. ●



# Gurutzegrama



### EZKER-ESKUIN:


1. Bost gehi bost. / Gauerditik eguerdira. 2. Polit, sotil. / Atea. 3. Zintzoki. 4. Behiaren erraiak. 5. Aurpegitik at ematen den musu. / Argazkiko kobazuloa. 6. Faltsu. / Buztinlari. 7. Orin (Bizkaian). / Balu. 8. Ergeldu, zozotu. / Aszeta indiararak.

### GOITIK BEHERA:


1. Eskolatu, irakatsi. / Bilboko Okupazio Mugimendua. 2. Iratzarrik, buru-gaitasunak erne. / Kolore izena. 3. "Bat eskuan hobe, bi ... baino". 4. Hezur giltzaduren hantura. 5. Hitz ematea. / Nanotesla. 6. Jazz estilo. / Zuhaur. 7. Goratzeko ekintza. 8. Guztiei dagokiona. 9. Idi hitzak hitz-elkarketan hartzen duen forma. / Nafarroako herria. 10. Mendebaldean, zen. / Seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea (pl). 11. Lore. 12. Ahuntzaren ar. 13. Uneko egunean. 14. Urkamendia. 15. Portua (alderantziz).

# Sudokua

ERRAZA





ZAILA



# Esaera zaharra


KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



# Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.


- Narrazio labur
- Zuhaitz izena
- Mantendu, eutsi
- Momentu honetan
- Urazpiko detektigailu
- Bizkarraren hezur
- Kalentura
- Itsas kirola
- Araudi-multzoa
- Iseka, burla
- Tori
- Oihal zati zahar
- Apur, zati oso txiki



### EBAZPENAK


ARGITU ORDUKO ILUNA, ABENDUKO EGUNA.

### ATSOTZITZA



- PAPUR
- TRAPU
- HARTU
- TRUFA
- FORUA
- SUKAR
- SAKRO
- SONAR
- ORAIN
- IRAU
- PINUA
- IPUIN

### ANAGRAMAK



ERRAZA

11. LILU, 12. AKER, 13. GAUR, 14. URKA, 15. AIAK. GORAFEN, 8. OROKOR, 9. IT, IZABA, 10. ZAN, AMAK, MENTURAN, 4. ARTIRITS, 5. ZIN, NT, 6. BOP, ZEU, 7. GOITIK BEHERA: 1. HEZI, BOM, 2. ADI, MORE, 3. FAKIRAK. ZERAMIKARI, 7. ORAINEN, BALEUKA, 8. MENSU, ZINTZOKI, 4. TRIPAKI, 5. MUIN, POZALAGUA, 6. BORT, 3. ESKER-ESKUIN: 1. HAMAR, GOIZ, 2. EDER, BORTA, 3.

# Arkaitz Prieto

'ARKADIO IRAKASLEA'



## AKADEMIA UHINETAN

"Izar Beltz Ateneoa okupatu berritan hasi nintzen Irola Irratian murgiltzen, ondoan zegoen eta. Txikitan beti entzuten nituen irrati libreak. Bestelako saio bat egin nahian sortu nuen *Linterna de Diógenes* programa; akademiako adituak elkarrizketatuz formakuntzarako helburuarekin. Langileen historia jorratu dut: grebak, gizarte mobilizazioak, matxinadak, biografia batzuk... Ez hori bakarrik, gaurko gizarte borrokek ere badute lekua, saio zientifikoak ere badira...".

## "Irrati libreek erabilgarriak izan behar dute gizarte mugimenduentzat"

*Linterna de Diógenes* irratsaioari ahotsa jartzen dio Arkadio irakaslea ezizenez ezaguna den Arkaitz Prietok (Erromo, 1981). Haien bizimodua, kultura, balioak eta antolaketa moduak ardatz hartuta klase desjabetuen historia azaltzea eta aldi berean menderatze sistemak aztertzea du xede. Zorroztasun akademikoaren bidetik bokazio dibulgatzailea du, adituek josten dituzte informazioz beteriko kapsulak. Monty Pythonen filmetako umoreak ematen die hasiera piezei.

 LEIRE REGADAS  HODEI TORRES

**La linterna de Diógenes saioaren 15. denboraldia hasi da aurten. Hamabost urte, azkar esaten da!** Bai, bai... hamabost urte! Programak bilakaera handia izan du. Konstantzia baten isla da, militantzia lana baitago saioaren atzean. Lehen urteetan ia ez zuen entzulerik, baina orain badut erantzukizun bat, baita presioa ere, ez dut ukatuko!

**Has gaitzen hasieratik. Diogenes Sinopekoaren izena darama saioak. Intentzioen adierazpen bat da?**

Koherentea da guztiz. Platonen etsai aitortua zen Diogenes. Platon ideia abstraktuek arduratzen zen eta Diogenes ideia mundutarrez, sabela betetzeaz, autoritatea desafiatzeko zuen hein handi batean ere. Baina, batez ere, mendebaldeko filosofiaren korronte materialistaren abiarazleetako bat izan zen. Platonek irabazi zuen eta ideia abstraktuak gailendu dira beti. Diogenesek lurrera begiratzera eramaten gaitu berriro.

**Jakina da garaileek idazten dutela Historia, eta askotan modu partzialean erreproduzitzen dela. Kontakizun hegemoniko horretan arrakala ireki nahi izan duzu?**

Behetik datorren Historiaren ikuspegia Ingalaterrako tradizio historiografiko luze batetik dator, E.P. Thompsonek historia soziala bulztatu zuenetik, batez ere. Ikuspegi marxista du, herritarren ikuspuntutik pertsonak nola bizi izan diren aztertzen duena, Historia militarrekin apurtuz. Hori aztertzen duten adituez hornitzen naiz elkarrizketak egiteko.

**Kalera ateratu duzu akademia.**

Saioak erabili eta botatzeko produktu bat ez izatea da nire helburua, baizik eta eskuliburu erraza izatea. Amu bat izatea, gero gai horren inguruan gehiago sakontzeko, ikeritzen jarraitzeko. Saioa ez litzateke posible izango akademiaren munduan aurkitu ditudan pertsonak parte hartzera animatu ez balira.



“Erabat sinesten dut irriariaren gaitasun subertsiboan”.

### **Lortu duzu helburua? Ivoox podcast plataforman 47.000 jarraitzaile dituzu dagoeneko.**

Ez dakit zeren isla den zenbaki hori, ez diot garrantzirik ematen. Baina gero eta interakzio handiagoa nabaritzen dut. Urteotan zehar argialetxe alternatiboak eta kolektiboak jarri dira nirekin harremanetan gauzak galdetzeko, erreferentziak eskatzeko, edo eztabaidak hasteko nire saioetako bat erabili dutela esateko. Hori gozamen hutsa da!

### **Historia libertarioa ez dago salbuetsita emakumeak ikusezin bihurtzetik... Emma Goldman, Louise Michel eta beste hainbat emakumeren biografiak, grebak eta borrokak ekarri dituzu gogora.**

Gero eta gehiago saiatzen ari naiz protagonistak pertsonaia femeninoak izan daitezten, baina ez dira nahi adina. Ni ere konturatzen naiz aldaketak egin behar ditudala nire begiradan. Saioak hutsune asko ditu emakumeen protagonismoari eta kolonialismoari dago-kienez.

### **Etxean grabatzen dituzu saioak orain, baina Bilboko Irola irrati librean hasi zinen emititzen.**

Irriariaren mundutik nator, eta irratia egiten dudala pentsatzen jarraitzen dut, nahiz eta saioa etxean grabatzen dudana eta nahieran entzuten den gero.

### **Berrogei urteko historia dute irrati libreek. Zein puntutan daude?**

Hasieran irrati libreek zuten diskurtsoa zen: “Etorri hona eta kontatu esan nahi duzun hori”. Gaur egun edonork egin dezake *streaming* bat bere etxetik bertatik, kamera edo mikrofono bat besterik ez da behar. Beraz, ezin dugu helburu berarekin jarraitu, diskurtso hori aldatu beharra dago. Nire ustez, kaleko kazetaritzaren aldeko apustua egin beharko litzateke.

### **Bide hori hartzen ari direla derituzu?**

Irrati libreen topaketa batean egon nintzen duela gutxi. Duela berrogei urteko mezu berbera eta duela berrogei urteko autokonplazentzia eta erosotasun immobilista aurkitu nuen han. Aldi berean,

energia handiko jendea bazegoen, irratia egiteko gogoia zuena eta kolektiboentzat eta gizarte mugimenduentzat baliagarri izateko grina zuena. Irriariaren gaitasun subertsiboan erabat sinesten dut, oraindik garaiz gabiltzala uste dut. Komunikabide tradizionalak gero eta legitimitate txikiagoa duten honetan he- dabide libreak dira aurrerapausoa eman dezaketenak. Irrati libreek gizarte mugimenduentzat baliagarriak izan behar dute, eta ez alderantziz.

### **Hainbeste urte igaro ondoren, *Linterna de Diógenes* zure bizitzaren zati garrantzitsua da, baita entzuleena ere. Luzarorako proiektua da?**

Erantzuna ezezkoa da. Hiru urte daromatzen horren inguruan pentsatzen eta oraindik indarra eta kemena behar ditut saioa behin betiko amaitzeko. Bertigoa ematen didan arren, iritsi da unea non beste militantzia batzuei denbora gehiago eskaini nahi didan. Alderdi komunikatiboan itsu-itsuan sinesten dut, baina orain kalean egon nahi dut ehuneko ehunean. ●



# “Durangon ordu eta erdi? Gutxiago balitz, hobeto”



Stand bateko langilea, irakurle baten aurrean estatuarena egiten.

“Eskerrak ordu eta erdiko muga jarri duten, nire liburuak zein ederrak diren esan eta esan aritzen zaizkidan irakurle gogaikarri horiek derrigorturik daude gutxiago hitz egitera, gainerako idazleak ere akitu nahi badituzte”, kontatu digu idazle beterano batek, izena ez-kutuan mantendu nahi izan duenak, jendea ez dadin konturatu derrigorturik dagoela hor, egun osoa Palentinoan gustura asko emango lukeenean, herri xehearekin ardo batzuk hartzen. “Eta nik zorzea daukat. Ni baino bi mahai lehenago Jon Maia dago, itsasoarekin bospasei orduko elkarrizketak man-

tentzera ohituta, jende uholdea ez da oztopo berarentzat, eta hor ibili da, bere parean jartzen zitzaion orori habanera bana kantatzen. Nire aurrera heltzerako jendeak minutu pare bat zuen gehienez Landakotik irteteko, beraz kaixo, hartu 18 euro eta agur. Bada jende zakurra, partida irabazten ari diren futbolariak bezala, aldatu behar dituzten uanean zelaiaren beste puntara joaten direnak, edo stand artean despistatu aurpegiarekin geratzen direnak, baina nirekin jai daukate, legeak betetzeko daude eta QR kodeak dioena LEGE gorena da”. ●


## Egin kasu Batmani, txo!



### SAREAN ARRANTZATUA

**BAI,**

**BAINA**





# BABESTU INDEPEN DENTZIA

**Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.**

**Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.**

**Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.**

**[argia.eus/eginargiakoa](https://argia.eus/eginargiakoa)**

**[komunitatea@argia.eus](mailto:komunitatea@argia.eus) | (+34) 943 37 15 45**

# Gure LITERATURA OSPATZEN



ARGIANTZA  
PELLO LIZARRALDE  
*Euskarazko literatura*

LOS ÚLTIMOS  
ROMÁNTICOS  
TXANI RODRÍGUEZ  
*Gaztelaniazko literatura*



HALTZAREN  
MUINOA  
ANJEL LERTXUNDI  
*Euskarazko haur eta gazte literatura*



TRANSPARENTES  
HISTORIAS DEL  
EXILIO COLOMBIANO  
JAVIER DE ISUSI  
*Literatura lanaren ilustrazioa*



NIK KANTATU ETA  
DANTZA EGITEN  
DU MENDIAK  
JOXAN ELOSEGI  
*Euskarazko literatura itzulpena*



LAS GRIETAS  
DE AMÉRICA  
MIKEL REPARAZ  
*Gaztelaniazko saiakera*



XABIER LETE  
ABERRIAREN  
POETA KANTARIA  
ALEX GURRUTXAGA  
*Euskarazko saiakera*

